1995eko otsailak 24
266. zenb.

# ARRASATE PRESS

DEUNORO OTERO (UDALETXEA)
HERRIKO PLAZA
ARRASATE
0
9



# Mozorroa gertu


TODAS
ARRASATEKO UDALA
(KULTURA SAILA)
• Taldea: TTANTTAKA • Non: Amaia antzokian •
• Noiz: Martxoak 3, ostirala, 10'30etan •
• Sarrera: 700 pta. / Gazte txartelarekin 500 •
GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA
CULPABLES


HAIZEA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN: Gazte, indartsu eta segurua.
CORSA
VIVA
CORSA
OPEL
▲ 1.2 Nz eta 1.5 Diesel motoreak.
▲ 5 abiadura.
▲ Lorahautsaren aurkako mikrofiltroa eta aireraren birzirkulaziorako sistema.
▲ Aurreko segurtasun-oihal autoteinkagarriak.
▲ Atzeko lainu-argiak.
TAKOLO AUTOAK

# Jende leiala

Ez da gozoa gure giroa. Norgehiagoka da nagusi, lehia dago denean.

Hala ere bada besterik.

Norberarentzako probetxurik bilatu gabe ondokoei laguntzen dienak ere badaude. Honelako gertakari batzu aipatu nahi nituzke gaurkoan.

Bost gizonez osatutako lantalde baten eginkizuna zen fabrika baten mantenimendua. Haietako baten emazteak istripu larri bat izan zuen kotxez, eta ebakuntza ondoren, arreta bereziko zainketa gelan egon behar izan zuen aste pare batetan. Eta alboan zuen senarra. Besteen kontura utzi behar izan zituzten seme-alabak.

Senarraren lantaldeko lagunak aktiboki lagundu nahi izan zioten euren lankideari. Bakoitzari zegokion lana egiteaz gain, falta zenarena egin zuten ordu gehiago sartuz. Eta gero, ospitalean emaztea zaintzen zegoenaren postuan egindako orduei zegokien dirua, berari eman zioten.

Bada beste kasu bat ere, lau emakumez osatutako lan taldean gertatua. Garbiketakoa zen talde hau. Haietako bati handitu bat sortu zitzaion eta gerora minbizia zela jakin zuten lagunek. Ebakuntza eta gainerako tratamenduak jasan eta gero itzuli zen lanera. Baina sobera ere nahiko ahuldua zen; ahaleginak eginda ere lana aurrera ateratzeko gauza ez zela ohartu ziren lagunak. Eta orduan, esfortzu handi bat eginez, hiruren artean hartu zituzten haren lan gogorrenak, arinenak berari utziz, hautsak kentzea eta honelakoak. Euren laguntza eman zioten lanean jarraitu zuen bitartean.

Ez dut bukatu nahi beste era bateko laguntasuna ere aipatu gabe. Bada jende leialik, norabait arazoetan ikusten duenean bere alde egin eta babesa eskaintzen dionik. Laneko arazoak direla edo harremanei dagokienak direla, beti daude prest eskua luzatzeko.

Laguntasun honek ez die pertsonalki ezer irabaztekorik ekartzen. Alderantziz, buruhausteak ekartzen dizkie eta arazoetan dabilena babestean, haren aurkariarekin aurrez-aurre suertatzen dira. Aurkari hau laneko burua denean gainera, begitan hartuak izateko arriskua dakar eurentzat. Eta hala ere eutsi egiten die zuzena deritzoten jokaerari.

Inbidiak, gorrotoak, besteren ona ezin eramanak eta norgehiagokak agintzen dute gizarte honetan. Hala ere tarteka ikusten dira honelako gertakizun eta jarrera prestuak. Hauek dira norbera bizitzarekin adiskidetzen dutenak, eta ingurunea bizigarria egiten dutenak.

**Rufina Olasagasti**



Sagu-zahar

GATZAGAn, ERDI ERDIAN...
ZUHAITZ jatetxea



BAZKARI ETA AFARI ONENAK...
Tfnoa: 71 46 08

Memesa
79 42 22

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE** PRESS •

**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Maria Agirre. **Kazetariak**: Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Hizkuntz arduraduna:** Arantza Ozaeta **Publizitatea**: Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa**: Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa**: Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran,Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna**: Jabier Ozaeta. © **ARRASATE** PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia**: ASA Taldea.

## Hitz egin ezin dutenen bozeramaile

Bakoitza bere kasara eta bere denboran, asko gara Santa Barbara parkean txakurrarekin nahasi ibiltzen garenok eta txakurra lotzearen aurka gaudenok. Lege diktatorial hori indarrean jarri zenetik, betetzen dela arduratzen direnek, zaindariak, udaltzainek, ederto egiten dute euren lana, hain ondo, non bizilagunen (lege horren kontra daude) errespetoari faltatu egiten dioten.

Horrela bada, jendaurrean salatzen dugu txakurra berde gunean lotu behar izatea, eta Arrasateko bizilagunen laguntza geure alde dugunez, kausaren aldeko sinadurak batuko dira (tabernetan eta debekatzen duten parkeen seinaletan) ugazabei eta txakurrei inongo askatasunik ematen ez dien lege hori ezeztatzeko. Guri, dena den, zalantza bat geratzen zaigu, zein ote den txarrago eta txakurrago, txakurra bera ala gizakia.

**Asodepeti**

## Gaisoaren 3. Mundu Eguna

Gaisoen aldeko Hirugarren Mundu Eguna dela eta, bere mezua bidali digu Aita Santuak. Eleizaren gaisoen aldeko ardurak sentsibilitatea lor dezala gure komunitateko pastoral-agenteen artean.

"Izpirituan eta gorputzean sofritzen duzuen Anai-Arreba maiteak, Jainkoaren deia ezagutu eta aintzat hartuko duzuela opa dizuet, zuen mina eskainita, Bake eragile izan zaitezten. Begiraiozue beti konfidantzaz Jesusi "Seme sufrikariari" eta eskatu zuen mina indar bihurtu dezala. Fedez entzun ezazue bere ahotsa: "Erdu nigana nekatuta eta arterik hartu ezinka zaudeten guztiok, eta nik atsedena emango dizuet". (Mt. 11, 18).

Fedearen doaia eman diezazuela Amabirjina Mariak sinisten duzuenoi, munduak hain beharrezko duen doaia. Berari esker, gaisoek eta makalek, gaitzak, gorrotoa eta ezin ulertzeak garaitu egingo dituzte.

Orain zuengana zuzentzen naiz, gaisoak zaintzen jardun duzuen mediku, erizain eta bolondresei. Zuen lana Bake ekintza izango da zaintzen dituzuen horiei maitasuna eskaintzen badiezue, eta, sinisdun bezala, Kristoren presentzia haiengan goraipatzen baduzue".

**Arrasateko Pastoraltza**

## Hildakoei buruzko haserrerik ez, mesedez

Astebukaera honetan Gaztetxean ospatuko den omenaldiari buruz eta horrekin batera sortutako polemikari buruz, hitz batzuk esan nahi genituzke.

Alde batetik, jendea minduta egon daiteke bazkarirako karteletan, etabar, azken urteotan hildako gazte guztietatik batzuk baino agertzen ez direlako, agertu beharko litzatekeen askoren falta somatuz, alegia.

Horretan arrazoi guztia daukate, baina gai hauek delikatuak dira oso bakoitzarentzat, eta hau ulertzen den moduan, omenaldi hau antolatzen ari direnek ere euren sentimenduei jarraituz egin dutela horrela, ez beste gazteak ahazteko asmoarekin, baizik eta euren lagun galduengan buru-belarri, erreakzio posible horietaz ohartu gabe. Izenak jartzen hastean, beti ahaz daitezke ba5 tzuk, eta erraza da norbaitek gaizki hartzea. Hala ere, omenaldi honen ideia eta galdutako lagunen izenak, azkenengo asanbladetan joan ziren irtetzen.

Eskertuko genuke jendeak hain gaizki ez hartzea, ez baita hori, inondik inora, gure asmoa, ezta desberdintasunik edo preferentziarik sortzea. Izenak jartzea izan da, seguraski, punturik delikatuena eta hor egongo da gakoa.

Bukatzeko, azpimarratuko genuke, "Gaztetxea denona dela eta denak agertu beharko lirateke" dioten esaldi hauei buruzko hausnarketa gisa, hori guztiz egia dela baina praktikan hobeto betetzeko, urreratu daitezela gehiago eta Asanbladetan hartutako erabakien parte-hartzaile izateko, denona denok egin behar baitugu, eta hori, denok gabe, ez da posible.

**A.G.A.K.O.**

## Estatistikekin bueltaka

Edozein gairi buruz mugitzen diren datu guztiak plazaratzea erabat zaila dela nabarmena, edo hobeto esanda, ia ezinezkoa. Beraz, zehazgabetasuna, manipulazioa, etabar luze bat, kasu askotan agertzen dira.

Zorionez, buruko "zapping"a egitea norberaren esku dago, lehen bait lehen beste programa batera pasatzeko edo seinalea mozteko.

Honetaz aparte, debaterako lehen legeak dioena, hor dago.

**J.J. Zabarte**


TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Mendi taberna
MENDI DA ZURE ETXEA
Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54


ITURRIOTZ taberna
Girorik jatorrena!
Tfnoa: 79 16 04

# Zer irizten diezu Arrasateko haratuzteei?



**Amaia Jauregi**
**Ikaslea**
**(14 urte)**

Egunik onena karnabal martitzena da. Egun horretan mozorrotu egiten naiz eta hurrengo egunean ez dudanez eskolarik izaten, oso ondo pasatzen dut.



**Migel López**
**Langabetua**
**(19 urte)**

Karnabal zapatuan Bergarara joaten naiz, han giro oso ona izaten da eta. Baina martitzenean hemen izaten naiz eta ondo pasatzen dut.



**Isabel Rodríguez**
**Etxekoandrea**
**(33 urte)**

Oso ondo. Jende asko mozorrotzen da eta asko gustatzen zait ikustea. Gehienbat zapatua gustatzen zait, hurrengo egunean jai izaten da eta.



**Carlos Fernández**
**Tabernaria**
**(24 urte)**

Onak dira, ezta? Nik herriko taberna batean egiten dut lan eta batez ere martitzenean izaten da giro ona.



**Feli Iriarte**
**Etxekoandrea**
**(47 urte)**

Zoragarriak direla, giro ona izaten da kalean. Baina nire ustez egun handia martitzena barik zapatua izan beharko litzateke.



**Jabier Etxebarria**
**Jubilatua**
**(67 urte)**

Lehengoak hobeak ziren, lehen gazteagoa nintzen eta. Niri karnabal martitzena gustatzen zait, umeak mozorrotu egiten dira eta izugarri gustatzen zait ikustea.



**Maier Uranga**
**Ikaslea**
**(15 urte)**

Gustatzen zaizkit baina batez ere, karnabal martitzena eta gauetan izan den giroa gustatzen zaizkit.



**Jose Antonio Nafarrate**
**Langilea**
**(39 urte)**

Gero eta hobeak dira. Karnabal martitzena da egunik politena, umeak mozorrotu egiten dira eta.


Elektroinjekzio Zerbitzua
LUCAS
ARRASATE KONPONKETAK
Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

NAROKI
Bitxitegia - Liburudenda
HARATUZTE HAUETAN
Egun zoriontsuak opa dizkizuegu.
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ......79 53 00
Igualatorioa ..........................79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ..............................79 39 00
(emakumeak) ........................79 44 11
Buru osasunerako zentrua ......79 90 11

**Gurutze gorria**
Bergara ................................76 55 76

**DYA**
Antzuola ...............................76 62 91

Anbulatorioak
Arrasate (Larrialdiak) ..............79 13 57
(Txanda hartzeko).....77 03 46
77 07 21
Oñati ....................................78 08 52
Eskoriatza .............................79 98 58
Aretxabaleta ..........................79 74 58
Aramaio .....................(945) 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak ........45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati .....................................78 04 11
Bergara .................................76 14 69
Arrasate .................................79 14 39
Aretxabaleta ..........................79 10 52
Eskoriatza .............................79 03 22

**Ertzaintza**
Arrasate .................................79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea ............................79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ..............79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .........12 01 62
Gasa ...............................900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ...................................79 12 22
P.E.S.A. ................................79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza ......................79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .......79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkartea ............79 87 77
KIUB-OMIC .............................79 51 55

**Monterrongo liburutegia**
Monterron...............................77 01 05

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala 24**
Egunez eta gauez:Corcuera. Musakola.

**Larunbata 25**
Egunez eta gauez:Irizar. Erguin.

**Igandea 26**
Egunez eta gauez:Amezua. Sta. Marina.

**Astelehena 27**
Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

**Asteartea 28**
Egunez eta gauez: Morales. San Andres

**Asteazkena 1**
Egunez eta gauez: Estella. Bergara
22'00ak arte: Azkoaga. Ferrferias.

**Osteguna 2**
Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.
22'00ak arte: Español. Iturriotz.

## 24 OSTIRALA

**ZINEA**
"Acoso" 7etan eta 10etan.

**KONTZERTUA GAZTETXEAN**
"Los Pichones" maketaren aurkezpena eta "SS-77" gaueko 9etan, Gaztetxean.

### SALTSA IKASTAROA

Arnaldo Pattersonen eskutik saltsa ikastaroa Musakolako saloian. Martxoaren 6tik 17ra, astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizez 11.45etatik ordubata arte eta gaueko 7.45etatik 9ak arte. Matrikula 3.000 pta. eta 1.500 pta. ikasle eta langabetuentzat. Gazte bulegoak antolatuta.

### DORLETAKO AMA ESKOLAREN AURKEZPENA

**Dorletako Ama txirrindulari eskolaren aurkezpena zapatuan. Goizeko 10.30etan meza Dorletako santutegian. 11.30etan aurkezpena Gure-Ametsa jatetxean.**

## 25 LARUNBATA

**ZINEA**
"Acoso" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**"SUPER BAT" IHAUTERI FESTA**
Super bat ihauteri festa arratsaldeko 4.30etatik 7.30etara, Musakolako kiroldegian. "Super bat"-eko Trikiflax, Kixkur eta Xabimetal izango dira eta baita beste zenbait sorpresa ere.

**HARATUZTEAK**
Gaueko 11etan eta goizaldera arte dantzaldia Herriko Plazan "Haitzama" taldearekin.

**PLAY BACK JAIALDIA**
"Sábado Regular. VI. Play back jaialdia", arratsaldeko 7etan eta gaueko 10.30etan Amaia antzokian.

**"PIRATA JAIA" GAZTETXEAN**
Eguerdiko 12etan poteoa pirata jantzita. Trikitilariak, txalaparta eta bertsolariak. 3rak aldera, herri bazkaria Gaztetxean. Arratsaldean; antzerkia, "Balang Yinge" perkusio eta erritmo afrikarrak jotzen dituen taldearen emanaldia eta bertsolariak. Gauean kontzertua, "Zakarrak" eta talde sorpresa. AGAKOk antolatuta.

## 26 IGANDEA

**ZINEA**
"Acoso" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**HARATUZTEAK**
Dantzaldia "Eguzki" taldearekin Herriko plazan arratsaldeko 7etan. Gaueko 8.30etan zezen suzkoa.

**HARATUZTEAK ARETXABALETAN**
Goizeko 10etan diana txistulariekin. 12etan kalejira "Mozoloak" txarangarekin. 12etatik 2etara kuadrila desfilea. Ordu batean Loramendi taldeak Txino dantza egingo du. 4retan kalejira "Mozoloak" txarangarekin. 7etan Santageda-mutilek aurrezkua dantzatuko dute Herriko plazan. Horren ostean, mozorro lehiaketaren sari banaketa. 10.30etatik 12.30etara "Mozoloa" txarangarekin kalejira.



## 27 ASTELEHENA

**ZINEA**
"Acoso" 7etan eta 9.30etan.

**ANTZERKIA**

**"Todas culpables" antzezlana Ttanttaka taldearen eskutik. Martxoak 3, ostiralez Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. eta gazte txartelarekin 500 pta.**

**ARGAZKIGINTZA IKASTAROA**

Hastapen maila martxoaren 7tik apirilaren 5era, astearte eta asteazkenetan. Ordutegia: arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte. ASA taldearen lokalean. Matrikula: 3.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat 1.500 pta. Sakontze maila, maiatzaren 8tik 25era, arratsaldeko 7.15etatik 9.15etara, ASAren lokalean. Prezioa: 3.500 pta. eta 2.000 pta. ikasle eta langabetuentzat.

## 28 ASTEARTEA

**ZINEA**
"Acoso" 7etan eta 9.30etan.

**HARATUZTEAK**
Arratsaldeko 5etan Bizkor, Kox-kor eta Enpresario jauna pailazoen emanaldia Sebero Altube plazan. 5etan "Samasiku" fanfarrearen irteera. 6etan "Auskalo" hankapaloen emanaldia "Samasiku" fanfarreak alaituta, Herriko plazan. Gaueko 10etatik ordu biak arte dantzaldia "Iratxo" taldearekin Herriko plazan. Gaueko 11etatik goizaldeko ordu bata arte, "Samasiku" taldearekin kalejira. 11.30etan Sardinaren hilketa herriko plazan. 12.30etan mozorro lehiaketaren sari banaketa herriko plazan.

**HARATUZTEAK ARETXABALETAN**

Arratsaldeko 3retan "Incansables" txarangaren kalejira. 5.30etan japoinar bonbajaurtiketa Herriko Plazan. 6.30etan buruhandiak eta gaueko 10.30etan Txinoaren hilketa Herriko plazan.

**HITZALDIA**

Gaia: Haratuzteak; tradizioa, ospatzeko erak eta jatorria. Sta. Teresa 12an arratsaldeko 3.30etan. Famili eta Gizarte-Hezketarako zentruak antolatuta.

## 1 ASTEAZKENA

**TAILA IKASTAROA**

Taila ikastaroa, hasierako maila martxoaren 6tik aurrera. Uriburu kaleko tailerrean, 30 orduko iraupena, astean lau ordu eta eguenetan bi ordu. Argibide gehiagorako eta izena emateko dei egin gaualdera 794079 eta 796764 zenbakietara. Arrasateko Tailaginen elkarteak Udalaren laguntzaz antolatuta.




## 2 OSTEGUNA

**ZINEA**
"Los hombres siempre mienten" 7etan eta 9.30etan.

**IKASTAROA**

Jazz dantza ikastaroa martxoaren 4, 11, 18 eta 25ean. Ordutegia: arratsaldeko 4.30etatik 6ak arte, Arrasate Musikalen. Prezioa: 3.000 pta. eta ikasle eta langabetuentzat 1.500 pta. Alboka ikastaroa martxoaren 4tik San Juanak arte, goizez, Arrasate Musikalen. Irakaslea: Karlos Subijana. Prezioa: 2.000 pta. eta 1.000 pta. ikasle eta langabetuentzat. Gazte Bulegoak antolatuta.

**HARATUZTEAK**

Zapatu eta martitzenean Haratuzteak Arrasaten.



"Informazio hori ez da zehatza, ez da egia. Kanpoan izan naiz aste honetan. Ostegunean, hemen nengoela jakin nuen horren berri eta harrituta geratu nintzen nik ez dudalako inongo tokitan baietzik eman eta ez dut ezertxo ere sinatu. (...)

Maila indibidualean hitzegin dut alderdi horretan ezagutzen dudan pertsona bakarrarekin. Hau da, nik Ignacio Gimeno ezagutzen dut pertsonalki, aspalditxotik (...). Berarekin hitzegin dut, berak egin zidalako proposamena lehenengo, baina nik ez dut baietzik esan, errepikatzen dut ez dudala beste inor ezagutzen. Ez dut gauza haundirik ulertu eta esan behar dudana da zera da, nola herri guztian hortaz hitzegin den aste osoan, jakin dezala hori ez dela egia eta aukera du beste aste betean behintzat hortaz hitzegiteko, gauzak bere lekuan gera daitezen".

**Jon Iñaki Lasa** 95-2-20 ATB ARRASATE

"Hauteskundeei begira, herriko seme euskaldun bat izan beharko litzateke hemengo alkatea. Berak ezagutuko ditu herriaren ohiturak, premiak eta gentea.

Herriko seme batek beste modu batean begiratuko dio herriari eta nola egin lana horren alde. Oraingo alkatearekin oso pozik gaude.

Zer eskatu hurrengo alkaterari? Izan dadila herri guztiaren alkate, herriko problemak bertara joan eta ikus ditzala. Ez dadila jarlekuko alkate izan, jakin dezala arrasatearrei entzuten, zuzen joka dezala.

Beste eskari bat egingo nieke bai alkateari eta bai zinegotziei ere: Arrasateko jubilatuak kontutan eduki ditzatela. Badakigu asko garena. Azkenengo urteetan, diru laguntzak asko mehetzen ari dira.

Gogoratu beharko luke, gaurko jubilatuak atzoko arrasatearrak direla, gure herria jasotzen jakin dutenak, euren lanarekin eta laguntzarekin".

**Bixente Azkarate** 95-2-16 EUSKADI IRRATIA

## Zer dela eta zabaldu duzue taberna eskubaloi eta rugby taldekoek?



**Agustin Aranburu**
*Rugby taldeko Presidentea*

Eskubaloi eta rugby taldeek lanean elkarrekin jarduteko hitzarmena sinatu genuen joan zen ostegunean. Elkarlanari ekiteko lehen proiektua Branka taberna alokatzea izan da. Hemendik aurrera, beraz, Branka Eskubaloi-Rugby Elkartea izango da. Tabernaren titularra eskubaloia izango den arren, urteko hainbat egunetan rugbykoen esku egongo da taberna eta ateratzen den dirua guretzat izango da. Hitzarmenarekin zein helburu lortu nahi dugun argi dago: dirua lortu. Babesleak eta dirua lortzea gero eta zailagoa dela ikusirik, beste diru-iturri batzuk bilatu behar izan ditugu eta tabernaren ideia hain beharrezkoa dugun diru hori lortzeko bide ona dela iruditu zaigu. Dena dela, esan behar da elkarlanean aritzeko ideia ez dela berria, azken bolada honetan buelta franko eman diogu elkarlanaren proiektuari, eta azkenean gauzatzea lortu dugu. Aurrera pauso honekin, diru arazoa neurri batean behintzat konpontzea espero dugu, nahiz eta jakin dakigun, beharbada, taldeon egoera ekonomikoa konpontzeko ez dena nahikoa izango. Baina hobe da diru-iturriak izatea, ezer edukitzea baino. Hitzarmenaren lehen urratsa baino ez da izan tabernarena, aurrerantzean ere elkarrekin lanean jarraitzeko asmoa dugu, eta dagoeneko, beste proiektu batzuk gabiltza aztertzen. Ideia berriak ondo landu barik ditugunez, ez dugu horien gainean oraingoz ezer aitatuko. Baina pentsatutakoa aurrera badoa, denbora gutxi barru proiektu sendo bati ekitekoak izango gara.


*Lanpostu hau hornitu dadin nahi du Arrasateko Udalak:*

**OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO SAILEKO BURUA**

*Baldintzak:* *Goi mailako titulazioa*
*Euskera*

***Izena emateko epea:* otsailaren 22tik martxoaren 13ra arte, biak barne.**

***Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 35. zk., otsailaren 21ean argitaratu dira autaketa prozesua agninduko duten oinarri-arauak; Arrasateko Udaletxean eskatu ahal izango dira horiek, Pertsonal sailean.***

*Arrasaten, 1995eko otsailaren 17an*

ALKATEA

### Musika ikastaroa

Berrogeita bost lagun inguru izan ziren joan zen asteburuan Arrasate Musikalen "Aschero" sistema musikalaren eskolak jasotzen. Sistema musikala edozeinentzat egokia izan daitekeen arren, batez ere ume atzeratuei zuzenduta dago. Sistema ez da ohiko zeinu musikalekin idazten, ostera, kolore eta zenbakiak erabiltzen ditu. Europa eta Ameriketan ezaguna da sistema hori; orain dela hogeita hamar urte sortu zen baina estatuan eta Euskal Herrian oso gutxi ezagutzen da.

### Jubilatuen txangoa

Arrasateko jubilatuek Deba Garaiko paraje turistikoak bisitatu zituzten eguen arratsaldean. Bisitaldia autobusez egin zuten baina hori baino lehen, ingurueì buruzko hitzaldia izan zuten eguaztenean.

Jubilatuek azken asteotan antolatu duten ekintza sortari bukaera emateko egin zuten txangoa.



### Batzar Orokorra

Corazón de Encina kultur elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen joan zen domekan, otsailaren 19an. Batzarrean esan zutenez, iazko balantzea oso positiboa izan da eta bazkideak ere gustora daude egindako ekintzekin. Bestalde, zuzendaritza batzordea ere berritu egin zuten eta partaide berriak honakoak izango dira: Nuria Garcia, Manoli Frutos, Pepe Campallo eta Andres Mellado. Aurtengo urterako dituzten asmoen artean, txerri hilketa Extremadurako erara egin nahi dutela esan zuten. Horrez gain, Al-Andalus elkartearekin batera egun berezi bat antolatuko ei dute.

### Kalteak autoetako ispiluetan

Astebukaera honetan ere hainbat autotako aldameneko ispiluak apurtu dituzte zenbait ezezagunek. Asteburu honetan hamaika ispilu apurtu dituzte. Errebuelta kalean zeuden aparkatuta auto horiek.

Azkenaldian kalteak egiten dituzte kale horretan aparkatuta egoten diren autoetan eta Ertzantzak hori argitzeko neurriak hartuko ditu.

### Zerbitzu Soziala

Arrasateko Talde Antimilitaristak, Zerbitzu Sozialean ez parte hartzeko deia egin zien herriko kultur taldeei. Itxura denez, Zerbitzu Soziala egin dutela justifikatzeko, hainbat gaztek kultur taldeetan egindako lanaren berri ematen dute eta taldeek horren agiria egiten dute. Antimilitaristek hori egiteak mugimendu antimilitaristari kalte egiten diola erakutsi nahi izan zieten kultur taldeetako ordezkariei eta horretarako batzar batera deitu zituzten eguazten arratsaldean.

**JAIOTZAK**

- Leire Fernandez Murillo. Otsailaren 15ean.
- Jone Arregi Maria. 19an.

**EZKONTZAK**

- Andoni Gurrutxaga Goti & Iraya Saiz Lezeta. Otsailaren 11n. Elizaz.

**HILDAKOAK**

- Jose Ramon Garriko Ledo. 66 urte. Otsailaren 11n.
- Filomena Alcala Gonzalez. 81 urte. 12an.
- Felix Pérez Ortega. 63 urte. 14an.
- Miguel Nafarrete Uribarri. 65 urte. 14an.
- Benita Azkarraga Azkarraga. 79 urte. 16an.

LANDALUZE HARATEGIA

KALITATEKO EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL

*Arrasaten Euskal Kalitate Labeldun okela saltzaile bakarra.*
*TXAHAL OKELAZ gain orain IDI OKELA ere Euskal Kalitate Labelarekin.*

Iturriotz, 7 ARRASATE ☎: 79 14 86



* IÑAKI IDIGORAS

# Klima aldatzen ote?

**Azken** urteotan denon ahotan ibili diren hitzak dira ozono, negutegi-efektua, CFC-a eta beste zenbait. Baina zein da horien jatorria eta zer ondorio izan ditzakete gure kliman? Ondorengo lerroetan negutegi-efektuari buruzko zenbait zertzelada emango ditugu, S. H. Scheneider aditu estatubatuarraren artikulu batean oinarrituz.

Guztiok dakigu negutegi bat zer den eta bere eginkizuna zein den: eguzkitik datorkigun beroa barrura sartzen uzten du, baina ondoren ez dio berotutako aireari kanpora irtetzen uzten, horrela barruko giroa berotuz. Negutegi arrunt batean plastikoa edo beira erabiltzen da helburu horretako. Behin hau jakinda negutegi-efektuaren ondorioa bistakoa da; baina zerk betetzen du plastiko edo beiraren funtzioa?

Atmosferan zenbait gasek osatzen duten geruza bat da funtzio hori betetzen duena. Gas horien artean, besteak beste, karbono dioxidoa (CO2), metanoa eta CFCak azaltzen dira. Jakinekoa da gas hauek beti izan direla atmosferan, baina, batez ere industri iraultzaz geroztik, karbono dioxidoak atmosferan zuen kontzentrazioa %25ean handitu da. Karbono dioxidoaren kontzentrazio handiketaren zergatiak bi dira:

• Erregai fosilen (petrolioa eta ikatza gehienbat) erabilera handiaren ondorioz karbono dioxido asko askatu da atmosferara.

• Fotosintesia (karbono dioxidoa oxigeno bihurtzeko prozesua) gauzatzen duen landaretza asko murriztu da, eta geratzen den landaretzak ezin du karbono dioxido guztia oxigeno bihurtu.

*"Azken ehun urteotan gradu erdi igo du lurrazaleko tenperaturak"*

Azken ehun urteotan gradu erdiko igoera somatu dute adituek lurrazalean, baina oraindik ez dute frogatzerik izan negutegi-efektuaren ondorio izan denik, askok hori uzten duten arren.

Orain arteko tendentziari jarraituz egin dituzten azterketek eta ordenadore bidezko simulazioek diotenez, karbono dioxidoaren bikoizketak lurrazalean hiru eta bost gradu arteko igoera ekarriko luke.

Arazoaren aurrean bi jarrera har ditzakegu:

• Lehena, baina ez egokiena, orain arteko bidetik jarraitzea litzateke, gure bizitza klima aldaketara egokitzen saiatuz.

• Bigarrena eta zentzuzkoena, karbono dioxidoaren emisioa murriztea izango litzateke, batez ere erregai fosilen erreketa kontrolatuz eta energi alternatiboak erabiliz, eta noski, landaretza zainduz.

Bukatzeko, esan beharra dago arazo honi aurre egiteko hartu beharreko erabaki garrantzitsuenak boterean daudenak hartu behar badituzte ere, bakoitzak bere aletxoa ipiniz, geure ondorengoentzako bizileku garbi eta egokia mantentzen lagun dezakegula.

* INJINERITZAKO IKASLEA

## USTEAK USTE

**ERRESPETOA**

**"Oraingo gazteak ez dute inola errespetorik". Makina bat bider entzundako esaldi horri aldaketa txiki batzuk egitea komenigarria litzateke, bakoitza berera, eta adina kontutan hartu gabe, "apisonadora" baten antzera joaten garen egunotan.**

**Ez noa adibiderik jartzera, egunero jasan eta ikusten baititut miloika.**

**Bakoitzak ondo jokatzen duen ustean, ondokoari leporatzen diogu errespeto falta, baina denok gurera, aldamenekoa denik ere konturatu gabe. Nor bere arrazoiaren jabe denez, denonatzako balioko lukeen errespeto hitz horren edukina azaltzea ia ezinezkoa dirudi.**

**Ondoan gu bezalako bat dagoela konturatzea, zaila egiten zaigu. Gu, ondokoa beste garela, ezinezkoa. Eta besteak sentitu, pentsa, uste duena, beretzat, guk sentitu, pentsa, uste dugunak guretzat duen garrantzia handian duela beretzat, burutik pasa ere ez zaigula egiten, bistan da.**

**Gure tokia utzi, eta bestearen lekutxoan, minutu erdiz jarriko bagina?...**

NEKANE SAN MIGUEL

HILARION
Taberna-jatetxea
Kafetegia
• Eguneroko menua eta kartako menua
• Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...
Prezio guztiz eskuragarriak!!
Larrea enparantza, 5 behea

"PAL"
burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78




Bazkideak hobeto ordezkatzeko, 600 ordezkarira igo nahi da parte hartzaileen kopurua.

# Ordezkari kopurua eztabaidagai MCCren VI. Kongresuan

MCCk egiten dituen kongresuetan parte hartzeko aukera duten ordezkari kopurua gehitzea eztabaidatu behar zuten ostiral honetan, otsailaren 24an, erakunde horrek egin behar zuen VI. Kongresuan. Orain arte, 370 ordezkarik izan dute kongresuan izateko aukera baina gehiengoak parte hartzeko modurik izan dezan, 600 ordezkarira igo nahi da kopurua. Modu horretan, kooperatibetako 18.000 bazkideak hobeto ordezkatuta egotea lortu nahi da eta hortan, 30 bazkideko ordezkari bat izendatzea gomendatzen da.

Iazko uztailean egin zen V. Kongresuan ordezkaritza 350 lagunetik 370era gehitzea erabaki zen baina "Lankideak"-eri, Fagor taldearen barruan debatea sortzeko eratu den taldeari, ez zitzaion alde hori nahikoa iruditu eta hori eztabaidatzeko ostiraleko kongresua antolatzea erabaki zen. Ordezkariak gehituz, kooperatiben eta elkartzeen ordezkaritza minimoa eta boto eskubidearen proportzionalitatea lortu nahi dira.

Bestalde, kongresuen maiztasuna ere eztabaidagai zen VI. Kongresuan. Kongresuak lau urtean behin egin daitezela baina gai arrunten gainean erabakitzeko ordezkarien batzarra urtero egitea aurrikusten da proposamen horretan.

## Lasak ezeztatu

Jon Iñaki Lasak ezeztatu egin du PSE-EE alderdiaren zerrendan aurkeztuko dela. Lasak esan duenez, PSE-EEtik proposamena luzatu zioten arren, ez zuen baietzik eman eta berak ziurtatu barik kaleratu zen zerrendan bere izena. Otsailaren 11n onartu zen zerrendan Lasaren izena laugarren ageri zen.

## Euskarazko irakaskuntza

Arrasateko Udalak euskarazko irakaskuntzaren alde egiten den kanpaina AEDrekin nahasi egingo du. Orain arte, Euskal Kulturaren Batzarrarekin (EKB) egin du eukaraz matrikulatzearen aldeko kanpaina eta elkarte horrekin adostasuna izan arren, oraingoan AEDrekin egingo du.

## Ur eta zabor-tasa

94ko hiruhilabeteko ur eta zabor-tasaren ordainagiriak martxoaren 31 bitartean, borondatezko epean ordaindu daitezke Udaleko bulegoetan. Epea bukatutakoan, %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

GURELEKU
Disko-Bar Gurelekuk
ihauteriko aste-bukaera zoriontsua pasatzera gonbidatzen zaitu.
Zarugalde, 17 / Otalora Lizentziatua, z/g
Tfnoa: 79 20 29

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 ARRASATE Tfnoa: 79 52 50




Ostegunean AEDren Batzar Orokorra egin zen.

# Erakundetu egingo da Ekin Emakume Taldea

Hemendik aurrera, erakunde juridiko autonomoa izango da AEDren barruan sortu zen Ekin Emakume taldea. Erakundetze horren berri atzo, ostegunez, eman zen AEDk egin zuen urteko batzar orokorrean. Era horretan, Ekinek jarraitu egin dio Arkok 92an eta Txatxilipurdik 94an hasitako bideari.

Miren Arregik, AEDren lehendakariak, bestalde, iaz finkaturiko helburuen deskargua egin zuen. 94a positiboa izan zela eta datozen urteei begira jarritako helburuak bete egin direla esan zuen Lehendakariak. Horrez gain, iazko aurrekontuen balantzea egin zen eta onarpena eman zitzaien aurtengo urterako aurrekontuei. Zuzendaritza batzordeko partaide berriak ere ezagutu ziren batzarrean.osteguneko batzarrean. Kide berriak honako hauek dira: Olatz Garai, Marije Gomez eta Miren Murgiondo, ARKO, Txatxilipurdi eta Ekineko ordezkariez gain; utzi dutenak, berriz, Nerea Alzola, Jon Arregi, Elias Errarte, Joxemari Mujika, Andoni Loiti eta Ruben Iñigez dira.

Nobedaderik ere aipatu zen. Herrian ekintza desberdinak burutu ahal izateko eta hori lortzeko azpiegitura edo lokal berriak lortzeko gestioak egiten hasi da AED. Bukatzeko esan, Txatxilipurdi elkarteak martxoaren 7an egingo duela batzar orokorra eta Ekin Emakume Taldeak, martxoaren 16an.

## "Oldartzen" nagusitu

"Oldartzen" ponentzia onartu du Arrasateko HBko militantziaren gehiengoak. %81k Mahai Naziolanaren "Oldartzen" txostena aukeratu du eta %19ak Errenteriako batzordearen "Iratzar" ponentzia. Joan zen ostegunean, hilaren 16an, egin zen aukeraketa Arrasateko Arrano Elkartean.

## CC.OO.en balorazioa

Gelma lantegian otsailaren 15ean egin ziren hauteskundeen balorazioa egin du Arrasateko CC.OO. sindikatuak. Sindikatu horrek hiru ordezkari lortu ditu, 90ean baino bat gehiago eta pozik azaldu dira CC.OO.eko arduradunak izandako emaitzarekin. CC.OO.en esanetan, boto gehiago izateak erakusten du, lan egoera hobetzeko egin duten apostuak erantzun ona izan du eta langileengan. Hauteskunde hauetan, UGTk 38 boto galdu baina ordezkari gehien lortu ditu: 6. ELAk beste bi galdu ditu eta 4 ordezkari lortu ditu.

KAJOI
Taberna

Baster-alde

Jatetxea
Sasoiko platerak, giro onenean
Galartza auzoa AREIXABALETA
Tfnoa: (943) 79 24 58



Ez utzi sartzen azterketa egin behar duela esanez joaten den edozeini.

# KIUBen gomendioak gas istalazioen azterketak egiterakoan

Gas istalazio enpresak gasa duten etxeetan egiten ari diren azterketak direla eta, kontutan izan beharreko ohar batzuk kaleratu ditu Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak.

Lehenik eta behin, gas istalazioa behar den moduan edukitzeaz erabiltzaileen eginbeharra dela gogoratu nahi izan du KIUBk eta horretarako edozein enpresaren zerbitzuak erabili daitezke. Hala ere, gas naturalaren kasuan, enpresak beharturik daude lan urtean behin azterketa hori dohainik egitera. Aholku modura, berriz, zera gomendatuko lieke Kontsumitzaileen Bulegoak gas erabiltzaileei: joan daitezela gasa jarri duten enpresara eta aurrekontua eska dezatela eta bestalde, istalazioaren azterketa egin behar duela esanez joaten den edozeini sartzen ez uzteko. Bukatzeko, azterketak zenbatero egin behar diren ekarri du gogora. Lau urtean behin gas naturalaren kasuan eta bost urtean behin gas butanoa edo gas propanoa baduzu. Edozein duda-muda izanez gero, bulegora joatea gomendatzen da.

## Sahiesbidea

Martxoaren 21era arte, Arrasateko sahiesbidearen karril bat itxita izango da. Goizeko 9etatik arratsaldeko 6etara izango da itxita karrila. Zenbait lan egin behar dituztela eta, itxiko dute karrila.

## Errepideak

Gipuzkoako Errepide eta Bideen foru araua indarrean jarri du Foru Aldundiak. Horren arabera, errepidean edo babesguneetan obrak egin nahi badira, Foru Aldundiaren baimena beharko da eta bestalde, edozein aldaketa egiterakoan errepidearen ezaugarriak aldatzen badira, diputaziori horren berri eman beharko zaio eta gainera, berorren txostena beharko da.

Bestalde, Diputazioak ez du onartu Takolon bostgarren bide bat egitea. Arrasateko Udalak, Olandixon egin asmo den tunelean sartzeko balioko lukeen bidea egitea eskatu zuen baina Diputazioak ez du proiektua aldatuko. Arrasateko Udalak Olandixo eta Alecopen artean egin nahi du tunela.

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA UNITATEA
Garciandia Doktorea

PATOLOGIA DIGESTIBOEN UNITATEA
Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA UNITATEA
Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA UNITATEA
J.R. Fernandez

ZIRUGIA UNITATEA
Alberro Doktorea

Ramon María Lili, 2 BERGARA • Tfnoa: 76 59 39/72 • Faxa: 76 25 72



Gasteizen bizi diren arrasatearrek egun berezia izan zuten azaroaren 26an. Eguerdiko 12etan meza izan zuten Brigida komentuan. Horren ostean, bapo bazkaldu zuten bildutako 91 lagunek. Aurten horrelako ospakizuna egiten duten lehen aldia bada ere, hain zoragarri pasa zutenez, datorren urtean gehiago eta hobeto egiteko asmoa daukate.



**"Animadorak" egoten dira Urbina-Maltzaga saskibaloi partiduetan. Atseden eta hutsartetan giro polita jartzen dute gazte hauek eta denboraldi bukaera arte egoteko asmoa dute. Argazkikoak Urbina-Maltzaga eta Ponferradaren arteko partiduan egon ziren.**



**Josu Pereda**k eta **Udalaitz-Seat** auto banatzaileak kotxe bana oparitu diote **HIES-Ekimena**ri. Ford Fiesta eta Seat 133 dira autoak. HIES-Ekimenak auto premia zeukan; batetik gaixoei bisitak egiteko eta bestetik eguneroko lana egin ahal izateko. Beraz, hemendik aurrera , hara eta hona ibiltzeko askoz hobeto jiratuko dira HIES-ekimenekoak. Detaile polita benetan!

beinke

Zuri Garbiketak

• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

ARRASATE HOTELA

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

AUKEAko sariak banatu ziren zapatuan eta sarituak honakoxeak izan ziren. **Gaizka Aranegi** judokak banakako saria jaso du. Gazte honek emaitza ezinhobeak lortu ditu. Taldekakoa **Urbina-Maltzaga** saskibaloi taldeak. Sari berezia, berriz, **Rosa Otxandianok**, atleta izandakoak, jaso du. Zorionak!




**"Goenkale"ko Mertxe, Sara eta Carlos dira. Eta nondik nora daukagun berguk euren argazkia? Bada, eguenean Arraldetik Arrasate etorri zirelako. Eskola Politeknikoan hitzaldi bat eman zuten. Aretoa jendez leporaino, jakina. Eta bertara inguratu zirenak pozik baino poziago "Goenkale"ko aktoreen aurrean.**





**Sara Vitoria** izan da joan zen asteko Gida Lehiaketako irabazlea. 10.000 ptako erosketa agiria jaso du Sarak, beraz, Loramendi Kirolak dendan diru horren truke gura duena hartzeko aukera izango du. Gidako lehiaketan parte hartzea merezi du. Bai horixe!

LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE
HIZKUNTZ ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK
Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Plus Ultra taberna
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

# HERRI IRRATIA
## —RADIO POPULAR—

Garibai, 19 - 20004 DONOSTIA — LOIOLA - 20730 AZPEITIA

# 95eko EZKONGAIAK

## DONOSTIA - OM 1.224

**AMBITO APAINKETA ETXEA - Donostia**
20 ontziko baxera

**BOUTIQUE FUSION - Donostia**
Amapontekoaren jantzia

**AITZBELTZ - Andoain**
Zanussi ikuzkailua

**CRISTINA VELASCO "PINKY" - Donostia**
Andregaiaren soinekoa

**CORTE BLANCO - Donostia**
Senargaiaren jantzia

**ANITZ - Donostia**
Andregaiaren loresorta eta Autoaren apainketa

**BIDASOA PORTZELANAK - Irun**
Portzelanazko erregalua

**ARTETXE HALTZARIAK - Mamut - Oiartzun**
Max besalkia

**IGELDO MENDIKO HOTELA - Donostia**
Ezkon- gaua, gosaria, beste gau bat eta gosaria

**TEP BIDAIAK - Donostia**
Mallorcako Palmara ezkon-bidaia.

## LOIOLA - F.M. 99,8

**BAYON - Donostia**
Andregaiaren jantzia

**TAYLOR - HARRODS - Gasteiz**
Senargaiaren jantzia

**FOTO IKATZ - Arrasate - Eibar**
Argazki erreportaia

**ETXEBERRIA ERLOJUTEGI - BITXITEGIA - Bergara**
Eraztunak eta 13 erresak

**IKER SUKALDE HALTZARIAK - Arrasate**
Sukaldeko mahai eta aulki bilduma

**CODORNIU**
Ezkontzarako cava

**MILAR KATEA - Azkoitia - Eibar - Arrasate**
21 atzeko estereo- telebista

**BERRIAK PERTSIANAK - Eibar**
Etxerako osagarrien bilduma

**IGELDO MENDIKO HOTELA - Donostia**
Ezkon-gaua, gosaria, beste gau bat eta gosaria

**OCASO ASEGUROAK - Eibar - Beasain**
Ezkongaientzako etxerako eta bizitza asegurua

**ARKAUZ HALTZARIAK - Aretxabaleta**
Flex, koltxoi eta xaflazko oinarridun bilduma

**KIMETZ ILEAPAINDEGIA - Azpeitia**
Ezkongaien ile apainketak

**BIDASOA PORTZELANAK - Irun**
Baxera bat

**BASKOTOUR BIDAIAK - Arrasate**
Bidaia eta astebeteko egonaldia Mallorcan

**EZKERRETEGI JATETXEA - Azpeitia**
8 lagunentzako bazkari edo afaria

**1996.eko martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Herri Irratia Loiolara edo Donostiara edo bita Azpeitia 26. postapartatura edo Donostia postapartatura ere 1.849.**

Senargaia (Izen-deiturak) ________ Tef.zka.: ________
Pos. kode: ________ Herria: ________ Helbidea: ________
Andregaia (Izen-deiturak): ________ Tef.zka.: ________
Pos. kode: ________ Herria: ________ Helbidea: ________
Ezkontza eguna (gutxi gora behera): ________

# ZALDIBAR-ZALDIBARKO Futbito 94-95 Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoi taberna eta Arrasate Kirolak




## Talde batzuk azken jardunaldiari begira

Datorren astebukaeran jokatuko den azken jardunaldian erabakiko da bigarren fasera nortzuk pasako diren. Talde bakoitzeko zortzi lehenek izango dute jokatzen jarraitzeko aukera. Taldez talde aztertuz, A taldean, Ganbelas, Kriskibalda eta Hireien artean egongo da azken lehia. Ganbelasek Straussen kontra jokatuko du eta irabaziko balu bigarren fasean sartuko litzateke. Kriskibaldak zailago dauka, 3. sailkatuaren kontra neurtuko ditu indarrak eta derrigorrez irabazi behar du sailkatzeko. Hireik eta Arrasate Kirolakek elkarren kontra jokatuko dute eta Hireik aukera asko ditu sailkatzeko. B taldean, Uglys Txinato, Petroleros, Los Dimy eta Txeyenex ditugu zalantzan eta azken jardunaldi hori erabakiorra izango da eurentzat. Uglys Txinatok eta Petrolerosek, dena dela, dute aukera gehien. C multzoan, Excavaciones Lete eta Perrahotsaren artean erabakiko da 8. sailkatua. Partidu zailak dituzte talde biek ere. Excavaciones Lete eta Autos Muru izango ditugu aurrez aurre eta Perrahotsaren aurkari Artzankos Udalaitz izango da. D taldean beste horrenbeste, Tronkoteak eta Sokoakoak hil ala biziko neurketa jokatuko dute; nagusitzen denak hurrengo fasean jokatuko du.

Zubia Oinetakoak
AUKERA ZABALA
Biteri, 1 ☎: 79 66 53 ARRASATE
Mitarte, 14 ☎: 79 16 00 ARETXABALETA

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

MARGOAK JUANMA
Margoak, paperak, gotelea e.a.
Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17

## A taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ADELAIDA HAIZEA | 18 | 14 | 2 | 2 | 104 | 31 | **30** |
| FOSFOROS | 18 | 13 | 2 | 3 | 89 | 36 | **28** |
| ZOTZ | 18 | 13 | 2 | 3 | 73 | 45 | **28** |
| ZULOAK | 18 | 12 | 4 | 2 | 78 | 37 | **28** |
| BUKANAK | 18 | 12 | 3 | 3 | 76 | 58 | **27** |
| CERV. LEINTZ | 18 | 13 | 1 | 4 | 103 | 40 | **27** |
| SALENCO Y KON | 18 | 13 | 0 | 5 | 76 | 45 | **26** |
| GANBELAS | 18 | 8 | 2 | 8 | 64 | 51 | **18** |
| KRISKIBALDA | 18 | 9 | 0 | 9 | 53 | 79 | **18** |
| HIREI | 18 | 7 | 3 | 8 | 74 | 56 | **17** |
| ATERPE | 18 | 8 | 1 | 9 | 61 | 68 | **17** |
| ARRAS. KIROLAK | 18 | 7 | 3 | 8 | 75 | 65 | **17** |
| INSERT COIN | 18 | 6 | 3 | 9 | 82 | 81 | **15** |
| FRAGUEL GOL | 18 | 5 | 3 | 10 | 60 | 74 | **13** |
| LOS DALTON | 18 | 5 | 3 | 10 | 55 | 75 | **13** |
| ASTOEN VILLA | 18 | 4 | 3 | 11 | 55 | 105 | **11** |
| EZT. EGIN ARTE | 18 | 3 | 4 | 11 | 48 | 98 | **10** |
| ILUNA TABERNA | 18 | 3 | 1 | 14 | 44 | 114 | **7** |
| BAYER LEINTZ | 18 | 2 | 2 | 14 | 42 | 95 | **6** |
| STRAUSS | 18 | 2 | 0 | 16 | 47 | 105 | **4** |

## B taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| NUEVO TABERNA | 18 | 14 | 2 | 2 | 112 | 48 | **30** |
| TRIKITI | 18 | 13 | 2 | 3 | 105 | 29 | **28** |
| SUM. UGARTE | 18 | 13 | 2 | 3 | 78 | 37 | **28** |
| TOTEM | 18 | 11 | 3 | 4 | 83 | 40 | **25** |
| PEPELUS | 18 | 12 | 1 | 5 | 76 | 45 | **25** |
| PUB PEOPLE | 18 | 12 | 1 | 5 | 98 | 61 | **25** |
| DANOK LAGUN | 18 | 10 | 4 | 4 | 82 | 44 | **24** |
| UGLYS TXINATO | 18 | 10 | 3 | 5 | 90 | 49 | **23** |
| PETROLEROS | 18 | 10 | 3 | 5 | 71 | 45 | **23** |
| LOS DIMY | 18 | 10 | 3 | 5 | 82 | 45 | **23** |
| TXEYENEX | 18 | 10 | 2 | 6 | 71 | 53 | **22** |
| BERANGO SUK. | 18 | 9 | 1 | 8 | 69 | 55 | **19** |
| ANBOTOSTE | 18 | 7 | 3 | 8 | 59 | 56 | **17** |
| NO COMMENT | 18 | 4 | 4 | 10 | 49 | 95 | **12** |
| LA BANDA | 18 | 3 | 2 | 13 | 47 | 102 | **8** |
| TOVARIXTX | 18 | 3 | 1 | 14 | 23 | 74 | **7** |
| EZKIÑ. HONTZAK | 18 | 3 | 1 | 14 | 33 | 109 | **7** |
| ORKATZ | 18 | 2 | 1 | 15 | 35 | 118 | **5** |
| ARRASTE ZOO | 18 | 2 | 1 | 15 | 39 | 96 | **5** |
| MONTERREY TAB. | 18 | 1 | 2 | 15 | 41 | 142 | **4** |

## C taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| IRATI STS | 18 | 15 | 1 | 2 | 101 | 32 | **31** |
| EQUS | 18 | 13 | 1 | 4 | 88 | 48 | **27** |
| LORA. POTROAK | 18 | 12 | 2 | 4 | 64 | 30 | **26** |
| AUTOS MURU | 18 | 12 | 2 | 4 | 83 | 40 | **26** |
| ARTZANKOS UDAL. | 18 | 12 | 2 | 4 | 62 | 43 | **26** |
| ORL. PIRATAS | 18 | 12 | 2 | 4 | 77 | 41 | **26** |
| KE OXTIAS | 18 | 11 | 1 | 6 | 69 | 70 | **23** |
| EXC. LETE | 18 | 10 | 1 | 7 | 62 | 41 | **21** |
| PERRAHOTSA | 18 | 9 | 2 | 7 | 47 | 48 | **20** |
| FRANTZISKANNER | 18 | 9 | 2 | 7 | 65 | 60 | **20** |
| JOTAKABAU | 18 | 7 | 5 | 6 | 53 | 55 | **19** |
| NABARROS | 18 | 9 | 1 | 8 | 76 | 66 | **19** |
| KOKA JUNIORS | 18 | 6 | 3 | 9 | 45 | 62 | **15** |
| LEYA | 18 | 6 | 1 | 11 | 66 | 93 | **13** |
| BODISCA | 18 | 5 | 0 | 13 | 37 | 49 | **10** |
| BANEUKO | 18 | 4 | 2 | 12 | 40 | 64 | **10** |
| TXOKO TABERNA | 18 | 3 | 2 | 13 | 33 | 104 | **8** |
| DKB | 18 | 4 | 0 | 14 | 35 | 74 | **8** |
| POTROSORRI | 18 | 3 | 0 | 15 | 40 | 100 | **6** |
| FOTO IMAGEN | 18 | 2 | 2 | 14 | 35 | 58 | **6** |

## D taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ARGI IBILI | 18 | 17 | 0 | 1 | 116 | 36 | **34** |
| AC SURCOS | 18 | 13 | 1 | 2 | 102 | 55 | **31** |
| MSM INGENIER | 18 | 13 | 1 | 4 | 82 | 41 | **27** |
| LOS HEREDIA | 18 | 12 | 1 | 5 | 97 | 56 | **25** |
| OJO AVISORE | 18 | 12 | 1 | 5 | 73 | 52 | **25** |
| D. A IRIZTU | 18 | 11 | 3 | 4 | 74 | 54 | **25** |
| MIKELOS | 18 | 11 | 2 | 5 | 77 | 42 | **24** |
| TRONKOTEAK | 18 | 8 | 5 | 5 | 57 | 66 | **21** |
| SOKOAKOAK | 18 | 9 | 2 | 7 | 58 | 59 | **20** |
| BORROCK´N ROLL | 18 | 8 | 3 | 7 | 65 | 54 | **19** |
| LAUTHERBRUNEN | 18 | 8 | 1 | 9 | 74 | 63 | **17** |
| SUKAR | 18 | 6 | 3 | 9 | 73 | 88 | **15** |
| ALTZA PORRU | 18 | 6 | 1 | 11 | 66 | 83 | **13** |
| KAKAJAURI | 18 | 6 | 1 | 11 | 50 | 73 | **13** |
| BZ SISTEMAS | 18 | 5 | 2 | 11 | 37 | 58 | **12** |
| MOTZ | 18 | 4 | 3 | 11 | 65 | 85 | **11** |
| ELISABETH | 18 | 5 | 0 | 13 | 38 | 100 | **10** |
| ANORTHOSIS | 18 | 5 | 0 | 13 | 28 | 38 | **10** |
| TEODOLITO | 18 | 2 | 1 | 15 | 46 | 113 | **5** |
| RESAKAS | 18 | 1 | 1 | 16 | 36 | 98 | **3** |


**URONDO**
**elektrizitatea**

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

# Debalde

DEBA BAILARAKO MERKATAL GEHIGARRIA

Errotalde Jauregia, z/g – 20570 BERGARA Tfnoa: 76 36 61 – Faxa: 76 08 19

## 19.000 ale eta 80.000 irakurle

AGUR LAGUNOK. ESKAINTZA BERRI BATEKIN GATOZ DEBA BAILARAKO LAU ASTEKARIOK.
ARRASATEKO ARRASATE PRESS, BERGARAKO BERRIGARA, ELGOIBARKO ELGOIBARREN ETA EIBARKO ...ETA KITTO!K HEMENDIK AURRERA KALERATUKO DUGUN MERKATAL GEHIGARRIA DUZUE HAU.
LAU ALDIZKARIEN BARRUAN BANATZEN DA ETA 19.000 ALEKO TIRADA ETA 80.000 IRAKURLE DITU.
DEBA BAILARAN TIRADARIK HAUNDIENEKO KOMUNIKABIDEA DA GAURTIK AURRERA DEBALDE.
GURE LAGUNTZAILE LEIAL IZAN ZARETEN IRAGARLE ETA IRAKURLE GUZTIOI ESKAINTZEN DIZUEGU ZERBITZU BERRI HAU. ON EGIN.

*Argitaratzaileak:*
- Arrasate Press
- Berrigara
- Elgoibarren
- ...eta kitto!

*Publizitatea:*
- Imanol Amiano
- Antxon Iriondo

*Maketazioa:*
- Jose Luis Gorostegi

*Tirada:*
- 19.000 ale

*Inprimategia:*
- Gertu Koop.

CARAVAN PARK



Larunbatetan egun osoa irekita





- KARABANAK
- AUTOKARABANAK

- REMOLKEAK
- BIGARREN ESKUKO MERKATUA

☎ 14 76 79 FAXA: 14 80 13

ERAKUSKETA: SAN JUAN BIDEA – ZESTOA

# Iragarki Merkeak

✓ GASTEIZERA joateko (kotxez) goizetan egunero -7etan- jendea bilatzen dut. Javier.
☎ 10 38 32

✓ ERIZAIN tituladun euskaldunak gaixo edo pertsona nagusiak zainduko lituzke, gau edo egun, etxean zein ospitalean. Marta.
☎ 74 02 33 (Goizez deitu)

✓ GELA BAT behar dut Donostian. Gonzalo.
☎ 10 72 62

✓ PISUA daukat salgai Eibarren, Legarre kalean, 11 zenbakian.
☎ 10 37 66

✓ LARRUZKO TXAMARRA, heavy itxurazkoa, salgai. Estreinatu barik. 16.000 pezeta. Pepe.
☎ 70 13 94 (Bazkal orduetan deitu)

✓ Motorra apurtuta duen RENAULT 21a erosi nahi nuke. Jon.
☎ 10 09 19

✓ GAI/LESBIANA lagun talde bat osatzekotan gabiltza. Bakarrik sentitzen bazara, hemen duzu zu bezala maite dutenlagunak egiteko aukera. Maitasunak mugarik ez duelako.
**128 Posta Kutxa. Posta kodea 20700. Zumarraga**

✓ BIGARREN ESKUKO R-11 salgai. Matrikula SS-V. Motorra: 1.700 zm. kubiko. Egoera onean. Prezioa: 250.000 negoziagarriak.
☎ 79 20 94

✓ Ibañez markako GITARRA saltzen dut, funda eta guzti. 30.000 pzta. Txema.
☎ 79 13 26

✓ Suzuki Lido MOTORRA salgai, 75 zm kubikoa. Matrikula: VI-3154-M. Hiru urte ditu. Maletero eta parabrisarekin. Joseba.
☎ 79 12 01

✓ Donostian ETXEBIZITZA baten bila nabil. Zure etxean toki bat badaukazu, deitu. Harremanetarako, Santirekin.
☎ 79 77 02

✓ MUSIKA TALDE baten bila nabil, lokala konpartitzeko. Txema.
☎ 79 13 26

✓ ETXEBIZITZA alokagai Arrasateko erdialdean.
☎ 77 03 38 eta 79 18 03

✓ 2 urtetako SIBERIAN HASKY bat saltzen dut. Papelak dauzka eta pedigreen ere bai.
☎ 74 38 41

✓ BMX klaseko BI BIZIKLETA saltzen ditut. Bata Peugeot markakoa, oso ondo zainduta, eta bestea Huch (USA) markakoa: kuadro orijinala, bakarra, frenoak, llantak eta manillarrak erregalatuz.
☎ 74 34 05

✓ KARABANA BAT saltzen dut. 5 plazatakoa da eta egoera oso onean dago.
☎ 74 37 84

✓ MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria.
☎ 74 26 46 – 74 20 31 (Gauez deitu)

✓ GITARRA KLASEAK hartuko nituzke, norbait klaseak emateko prest balego.
☎ 74 09 12

✓ Bilboko sendi batek AUPAIR BAT hartuko luke Northamptonen (Inglaterra). Etxean erdaraz hitzegiten da eta goizeko 9etatik arratsaldeko 3.30ak arte libre egongo litzateke.
☎ 74 15 73

✓ APARTAMENTU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.
☎ 74 16 57

✓ Paseorako BIZIKLETA egoera onean salgai. 9.000 pezeta.
☎ 76 16 51

✓ MUSIKA BATERIA salgai, ia berria.
☎ 76 08 58

✓ Snowboard TABLA BAT (10.000 pta.) eta ESKIAK, fijazioak eta botak salgai (15.000 pta.).
☎ 76 33 61

✓ PISU BAT alokatzen da Bergaran, Matxiategi kalean.
☎ 76 46 15

✓ PISUA salgai Bergarako Koldo Eleizalde kalean.
☎ 76 56 90

✓ PISUA ETA LONJA salgai Osintxun.
☎ 945 - 25 19 64

✓ ETXEA saltzen da Osintxun.
☎ 76 28 70 (deitu eguerdiz)

✓ PISUA dago salgai Zumaian.
☎ 76 44 53 – 74 31 81

***ATAL HONETAN IRAGARKIA JARRI NAHI BADUZU, JO ZURE HERRIKO ALDIZKARIRA.***


PUB
NEG•UDA

OLATZ PLAZA, 11
81 40 45 TELEFONOA

20730 AZPEITIA
(GIPUZKOA)



masusta
JATETXEA

TOKI ETA GIRO LASAI BATEAN
DASTATU PLATERIK GOXOENAK

Allemendi, 2 (Vista Alegre)
20800 ZARAUTZ
13 17 77 telefonoa

# KORTA SAGARDOTEGIA




88 71 86 Telefonoa

# GEURE GIROAN TXOTX!

# GURUTZETA

SAGARDO NATURALA

OSTEGUNETAN MENU BEREZIA

1.750 pta.

GURUTZETA Etxea ● Oialume bidea, 59

20115 ASTIGARRAGA ☎ 55 22 42

Sarrera Ergobia auzotik




SAGARDOTEGIA

Urte osoan irekita. Gosari, bazkari eta afariak.

OZTARAN BAILARA –URNIETA– ☎ 55 69 81

Astelehenetan asteko atsedena

# PAGAMYÑO

SAGARDOTEGIA



BEREZITASUNAK

MAKAILAOA SALTSAN KAZUELAK

PRIMERAKO TXULETAK PARRILAN

Pagamuño auzoa
☎ 69 18 19 – 69 15 83

ZIZURKIL

DIAMIR

*MENDIRAKO EKIPAMENDU TEKNIKOA*

*JON LAZKANOREN AHOLKULARITZAREKIN*

Harruriaga, 8
–BERGARA–
Tfnoa./Faxa: 76 08 84



JAR EZAZU ZURE IRITZIA GURE ESPERIENTZIAREN ONDOAN



**Mendiko liburuak**
– Desnivel edizioak
**Bidaia-gidak**
– Sua argitaletxea
**Ekipamenduak**
– Forro polarra–Polartec
– Sofitex-2000
– Sofitex-Thisulate
– Pluma-Duvet
– Polarra-Birziklatua
**Edredoiak-Duvet**
– Neurrira
**Arnesak-Zintak-Kaskoak**
– E.M.S.
**Neurri bereziak**
– Neurrira egindako jantziak
– Era guztietako mendi-espedizioak hornitzen ditugu



**Mikelos-Argi Ibiliren arteko neurketa goizeko 11etan Zaldibarren; Totem eta Pub Peopleen artekoa ordubete beranduago, Zaldibarren baita. Arratsaldeko 7etan Cerveceria Leintzek Adelaida Haizearen kontra jokatuko du. Partidu bi aipatzekotan, igandean eta Zaldibarren, MSM Ingenieria Integral eta Ojo avisore goizeko 10etan eta 12etan Suministros Ugarte eta Trikiti.**

## EMAITZAK

**A taldea**

Fraguel Gol 5 - Aterpe 6
Hirei 0 - Zuloak 2
Zotz 2 - Arrasate Kirolak 0
Cerv. Leintz 8 - Eztanda egin arte 3
Iluna Taberna 2 - Adelaida Haizea 5
Strauss 1 - Insert Coin 3
Bayer Leintz 2 - Ganbelas 3
Kriskibalda 1 LOs Dalton 0
Astoen Villa 3 - Fosforos 17
Bukanak 1 - Salenco y konpañia 0

**B taldea**

Totem 5 - Berango Sukaldeak 1
Sum Ugarte 2 - Pub People 5
Txeyenex 0 - Trikiti 6
Uglys Txinato 4 - Nuebo Taberna 7
Ezkiñako hontzak 4 - La Banda 3
Monterrey taberna 0 - Danok lagun 12
Los Dimy 2 - Tovaritx 0
Petroleros 2 - Arasate Zoo 1
Pepelus 4 - No Comment1
Orkatz 1 - Anbotoste 12

**C taldea**

Baneuko 3 - Ke Oxtias 5
Orlando Piratas 1 - Foto Imagen 0
Irati sts 4 - Koka Juniors 4
Equs 5 - Frantziskanner 6
Potrosorri 2 - Jotakabau 6
Autos Muru 16 - Txoko taberna 4
Perrahotsa 3 - Exc. Lete 3
DKB 1 - Artzankos Udalaitz 5
Nabarros 2 - Leya 5
Lorategi Potroak 1 - Bodisca 0

**D taldea**

Resakas 0 - Tronkoteak 1
Mikelos 4 - Sukar 5
Kakajauri 0 - Argi Ibili 1
Motz 8 - Lautherbrunner 8
Altza Porru 0 - AS Surcos 1
MSM 1 - Anorthosis 0
Borrock´N Roll 2 - Ojo Avisore 3
D. A Iriztu 4 - Teodolito 3
Sokoakoak 3 - DZ Sistemas 2
Elisabeth 2 - Los Heredia 16

## BELARRIRA

◆ **Lesionatu.** Strauss taldeko Rafa jokalariak izugarrizko zartada hartu zuen Insert Coin taldearen kontrako partiduan eta tibia eta peronea apurtu ditu. Baloia barik muletak hartu beharko ditu zati batean.

◆ **Kanporatuta.** Kakajauri eta Altza Porru txapelketatik kanpo daude ez zirelako partiduak jokatzera aurkeztu. Altza Porruk AC Surcos taldearen kontra jokatu behar zuen zapatuan 11etan eta Kakajaurik Argi Ibiliren kontra zapatuan 6etan.

◆ **Puntuak.** Danok Lagun taldeak ez zuen Autos Muru eta Bar Txokoren arteko neurketa epaitu, beraz, puntu bi gutxiago izango ditu lehen fasearen bukaeran.

◆ **Atsedena.** Astebukaeran honako talde hauek izango dute atsedena:A taldeko Astoen Villa eta Bayer Leintz. C taldeko Baneuko eta Nabarrosek eta D taldeko Sukar eta Lautherbrunnerek.


Casa Ceciaga

Ihauteri hauetan ere bertan aurkituko duzu mozorrorik egokiena.



Karnabal martitzen gauean 10etatik ordu batak arte ere zabalik!!

Maalako Arrabala, 3 ARRASATE TFNOA: 79 12 62

## ASTEBURU HONETAN

**Larunbata 25**

**Zaldibar**

| | |
|---|---|
| 8.50 | Petroleros - No Comment |
| 10.00 | Autos Muru - Exc. Lete |
| 11.00 | Mikelos - Argi Ibili |
| 12.00 | Totem - Pub People |
| 13.00 | Zotz - Eztanda egin arte |
| 14.00 | Orlando Piratas - Koka Juniors |
| 15.00 | Krikibalda - Fosforos |
| 16.00 | DKB - Leya |
| 17.00 | Strauss - Ganbelas |
| 18.00 | Txeyenex - Nuebo taberna |
| 19.00 | Cerv. Leintz - Adelaida Haizea |

**Iturripe A**

| | |
|---|---|
| 9.00 | Fraguel Gol - Zuloak |
| 10.00 | Orkatz - Berango Sukaldeak |
| 12.00 | Borrock´n Roll - Teodolito |
| 13.00 | Uglys Txinato - La Banda |
| 14.00 | Equs - Jolakabau |
| 15.00 | Bukanak - Aterpe |
| 16.00 | Potrosorri - Txoko Taberna |
| 17.00 | Iluna taberna - Insert Coin |
| 18.00 | Motz - AC Surcos |
| 19.00 | Monterrey Taberna - Tovarixtx |

**Iturripe B**

| | |
|---|---|
| 14.00 | Los Dimy - Arrasate Zoo |
| 15.00 | Hirei - Arrasate Kirolak |
| 16.00 | Lorategi Potroak - Ke Oxtias |
| 17.00 | D.A Iriztu - BZ Sistemas |
| 18.00 | Ezkiñako hontzak - Danok Lagun |
| 19.00 | Elisabeth - Tronkoteak |

**Igandea 26**

**Zaldibar**

| | |
|---|---|
| 8.50 | Pepelus - Anbotoste |
| 10.00 | MSM Ingenier - Ojo Avisore |
| 11.00 | Perrahotsa - Artzankos Udalaitz |
| 12.00 | Sum. Ugarte - Trikiti |
| 13.00 | Sokoakoak - Los Heredia |




# Azken bigarren jardunadia lasai-lasai

**Asteburu** honetako jardunaldia nahikoa lasaia izan da. Hala ere, egon da hamazazpi gol sartu duenik, Fosforos taldea hain zuzen. Astoen Villari 17 eta 3 irabazi zion. Autos Muru eta Txoko tabernaren arteko neurketa 16 eta 4 bukatu zen. Eta Los Herediasekoek, berriro ere sasoian daudela erakutsiz, astindu galanta eman zieten Elisabethekoei, emaitza 16 eta 2. Partidu polita eta bizia Motz eta Lautherbrunnenen artekoa izan zen. Hamasei gol sartu ziren guztira, talde bakoitzak zortzina gol. Bestalde, Equs eta Frantziskaneren arteko neurketa, esaten dutenez behintzat, ez zen zeharo garbia izan. Equsek 5 eta 6 galdu zuen. Fantziskannerek garaipena behar zuen bigarren faserako aukera ez galtzeko, eta Equsekoek laguntzatxoa eskeini zietela esan dezakegu. Lagun arteko kontuak!

Bukatzeko jakinaraziko dizuegu, otsailaren 27an, astelehenez, bigarren faserako sailkatutako taldeekin bilera izango dutela antolatzaileek Monterronen, arratsaldeko 7etan. Taldeen zozketa egingo da bileran eta bigaren faserako zehaztasunak emango dituzte antolatzaileek.

ECUADOR
Bidaiak
Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan
Ez galdu aukera!
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihoetan
LANTEGIA ETA ERAKUSKETA
Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

# *Itziar Ugarteburu*
# "Burmuinean dago kaxa beltza"



**Bi urte pasa dira Aita MenNin burmuineko lesioak dituztenendako unitate berezia zabaldu zutenetik. Aita Mennikoa estatuko lehena izan da. Bertan psikologo, psikiatra, logopeda, fisioterapeuta eta beste zenbait profesionalek egiten dute lan. Itziar Ugarteburu bergararra unitate horretako arduraduna da.**

**– Zer arazo dute unitate honetako gaisoek?**

– Unitate honetan dauden gaiso guztiek burmuineko lesioak dituzte eta kasu gehienetan auto-istripu baten ondorioz dute arazo hori. Beste gutxi batzuk, ostera, kirol-istripua izan eta gero daude hemen eta beste batzuk jausi edo infekzioren bat izan dutelako. Gaiso askok, gainera, funtzio gehienak dauzka galduta: batzuk funtzio intelektuala eta komunikatzeko eta hitzegiteko funtzioak falta dituzte. Beste batzuk fisikoki baliatzeko funtzioak ere bai eta kasu gehienetan ondorio psikikoak izaten dituzte: pertsonalitatea eta umorea aldatzen zaie eta depresioak izaten dituzte. Adibidez, zenbaitek oinez ibiltzeko funtzioa galtzen du eta beste batzuk funtzio hori, eta gainera ez dute ondo ikusten, entzuten eta ezin dute ondo pentsatu.

**– Zuek zelan laguntzen diezue gaiso horiei, zein terapia erabiltzen duzue?**

– Unitateko profesionalok elkarlanean antolatzen dugu lana. Gure terapia erreabilitazioan oinarritzen da eta kontutan izaten ditugu faktore psikikoak, fisikoak... Gure lantaldean psikologoak, psikiatrak, logopedak, fisioterapeutak, erizainak eta gizarte laguntzaileak daude. Hainbat profesional gaude gaiso baten erreabilitazio plana egin eta garatzeko.

**– Estatuan ez dago horrelako unitaterik, baina kanpoan?**

– Asko ez, baina Ingalaterran, esatebaterako, 1979tik daude horrelako zentruak. Ingalaterra da gure erreferentzia nagusia.

**– Zenbat gaisorendako lekua dago Aita Menniko unitatean?**

– Unitatean hamabirendako tokia dago. Burmuineko arazoa duen gaisoa lehen bait lehen jasotzen ahalegintzen gara, denbora oso garrantzitsua da-eta. Normalean jendea zai izaten da hemen sartzeko baina itxaron beharreko epeak motzak izaten dira.

**– Zenbat denboran egon daitezke gaisoak zuen unitatean?**

– Ez dugu mugarik. Normalean, sei edo zortzi hilabetean egoten dira baina beste batzutan urtebete edo bi urte. Hala ere garbi daukagu zentrua ez dela egoitza, tratamendua egin eta gero gaisoa osatuta ez, baina errealbilitatuta joaten da etxera. Erreabilitazioaren bidez gaisoaren arazoak konpentsatzen dira.

**– Etxera ezin badira bidali nora joan daitezke?**

– Kasu gehienetan etxera bidaltzen dira eta etxera bidali ezin direnak egoitzaren batera. Etxera joaten badira familiak hartu behar izaten du ardura eta senitartekoek hogeitalau orduan egon behar izaten dute gaisoaren gainean.

**– Orain dela bi urte zabaldu zen unitatea. Zer dela eta?**

– Alde batetik zerbitzua berritzeko asmoa zegoen, eraikin berria izateaz gain, beste gauza batzuk ere kontutan izan behar dira-eta. Filosofia horrekin lotuta, zerbitzu berriak sortu nahi ziren eta ospitalea konturatu zen burmuineko arazoak zituzten gaisoek ez zutela zerbitzu berezi eta espezializaturik. Gizartean zegoen beharra betetzeko antolatu zen unitatea. Bi urte pasa dira eta ikusi dugu beharra badagoela eta neurri batean erantzun egin diogula.

**– "Burmuineko lesioak" gaisotasun berria da?**

– Azken urteetan gero eta jende gutxiago hiltzen da istripuetan, baina aurrera egiten duten batzuk arazo larriekin geratzen dira. Orain dela berrogeita hamar urte gaiso horiek hil egiten ziren baina gaur egun ez.

**– Beraz, medikuntzarendako arlo berria izango da.**

– Bai. Burmuina gaur egun gutxien ezagutzen den atala da. Gainera, pertsonaren aspektu guztiak gidatzen ditu burmuinak, hortxe dago kaxa beltza.

**– Horrelako gaisoak beti izango dira?**

– Gero eta auto-istripu gutxiago dago baina bestalde, kirol istripuak ugaritu egin dira. Beti egongo da jendea gauza arriskutsuak egiten eta beti izango dira horrelako gaisoak.

**"Gero eta auto-istripu gutxiago dago, baina kirol-istripuak ugaritu egin dira"**

# Istripu batek bizitza aldatzen duenean



93ko apirilean izan zuen istripua Joselek.

Maria Agirre

**Jose Luis, "Josele", eta Judy edozein senar-emazte bezalakoak ziren orain dela bi urte arte. Madril ondoko herri batean bizi ziren biak eta edozein bikote moduan, goizero autoa hartu eta bakoitza bere lanera joaten zen. Arratsalde batean, ordea, auto istripua izan zuen Joselek eta lesio handiak utzi zizkion buruan. Hortik aurrera, Josele eta Judyren bizitza erabat aldatu zen.**

Maitagarria eta alaia da Josele, irrifarrea ere erraz ateratzen zaio baina bapatean haserretu eta garrasika hasteko gauza da. Hitzegin ere egiten du, asko gainera, baina ez daki zer esaten duen eta zer behar duen adierazten. Judyren berbetan, ordenadorea bezalakoa da Joseleren burmuina, informazioak kontrol barik irteten du bertatik.

Baina Josele ez da gutxitu mentala, istripu batek eragindako minusbalia fisiko eta psikikoa du eta iaztik Aita Menni ospitalean bizi da, buruko lesioak dituztenendako prestatuta dagoen unitatean.

### ZORITXARREKO ISTRIPUA

Orain dela bi urte gertatu zen zoritxarreko gertakizun baten ondorioz etorri dira Arrasatera Josele asturiarra eta Judy holandarra. 93ko apirilaren 26an, etxerako bidean zihoala, auto istripua izan zuen Joselek. Auto bat aurreratzen hasi zen baina parean zegoela beste autoa bere aldera pasatzen hasi zen eta Joselek gidatzen zuen autoa jo zuen. Kolpearen ondorioz, bidetik irten eta bi zuhaitz jo zituen asturiarraren autoak.

Handik minutu gutxira, emaztea pasa zen eta istripua izan zuen autoa senarrak zuenaren modukoa zela ikusi zuen. Hala ere, "zenbat jendek izango ote du senarrak bezalako autoa" pentsatuz, etxeratu zen. Etxean, ez zuen orduko bertan izan behar zen senarra aurkitu eta oraingoan susmo txarragoekin, istripua izan zen tokira bueltatu zen. Han jakin zuen, bizirik baina oso larri sauritua zegoen gidaria Josele zena.

Autoa txiki-txiki eginda zegoenez, hiru ordu laurden behar izan ziren Josele autotik ateratzeko eta ondoren, helikoptero batek ospitalera eraman zuen koma egoeran. Hiru aste pasa zituen AIU-n (Ardura Intentsiboen Unitatea) baina handik atera zen arren, koman jarraitu zuen, inkonziente, hilabete t´erdian.

### OZTOPOAK GAINDITUZ

Benetako arazoak ospitalean alta eman ziotenean hasi ziren. Ospitaletik zentru geriatriko batera eraman zuten eta han hitzegiten hasi bazen ere, gaisoaren jokaera kontrolaezinezkoa zen. Garrasi egiten zuen, ondotik pasatzen zenari biraoka hasten zitzaion eta ondora hurbiltzen zen oro jotzen zuen.

**"Istripua izan eta gero, ondorio latzekin geratzen diren gaisoekin ez dakigu zer egin eta nora bidali"**

Bestalde, zentru horretan gaisoa haltzaria balitz bezala tratatzen zutela ikusirik, Holandako mediku batekin jarri zen harremanetan Judy, zer egin eta nora jo zezakeen jakiteko. Medikuak Aspaceren berri eman zion eta haiek Aita Menni ospitalean zegoen zerbitzuaren berri. Azkenean, Madrilgo beste zentru geriatriko batean egon ostean, eta senarrak txarrera egin zuela ikusirik eta, batez ere, ospitalean beste toki bat bilatzeko ultimatuma eman ziotelako, iazko otsailean Aita Mennin ingresatu zuen Josele.

Judyk esan bezala, senarrak hobera egin du Aita Mennira etorri denetik: "Noizean behin momentu txarrak izan arren, hemen askozaz ere lasaiago dago eta apurka-apurka ekintzetan parte hartuaz doa. Esatebaterako, hortzak garbitzeko zepiloa eskura emanez gero, haginak garbitzeko gai da. Gainera, ariketak egiten dituzte hemen eta, gutxi igarri arren, aurrerapausu txikia eman du".

Baina Judyk badaki buruko lesioak dituzten gaisoak ezin direna Aita Mennin nahi beste denboran egon. Gaisoak ez duela aurrera egiten ikusten dutenean, medikuek alta emango diote Joseleri, beharbada sei hilabete barru, agian datorren urtean. Inork ez daki noiz izango den, baina Judy eta Aita Menniko unitate berezi horretan familiartekoren bat duen hainbat lagun, mugitzen hasi dira eta, oraingoz, elkarte bat dute. Helburua, gaiso horientzat zentru berezia egin dadila lortzea da.

**B**

**uruko lesioak dituzten gaisoak ezin dira Aita Mennin nahi beste denboran egon.**

### ATECE

Iazko apirilean ATECE erakundea jaio zen, buruko traumatismoak dituztenen Euskal Herriko elkartea. Gaisotasun berriaren inguruan dauden beharrei eta gabeziei irtenbidea emateko jaio da elkartea. Izan ere eta Judyren berbetan: "Zientziak eta teknikak aurrera egiten dute etengabe eta orain dela hamar urte ez bezala, istripu arriskutsuak izan arren, jendea ez da hiltzen. Helikopteroetan eta anbulantzietan AIU unitateak daude eta horrela, gero eta jende gehiagok irteten du bizirik istripuetatik. Baina gero ez dakigu ondorio latzekin geratzen diren gaiso horiekin zer egin eta nora bidali eta, gainera, ez dute laguntza handirik".

Gaiso horientzat zentru bat eratzea da ATECEren erronka. Gaisoak behar duen atentzioaren arabera, behar desberdinei erantzungo lieken zentrua. Baina, oraingoz, elkartea poliki-poliki doa. Judy ATECEren Gipuzkoako presidentea da eta esan digunez, helburua, oraingoz, elkartea ezagutzera ematea da: "Badakigu gure arazo bera duen hainbat lagun dagoela baina ez dute elkartea ezagutzen. Jende hori erakarri nahi dugu elkartera eta, bestalde, gizarteari arazoaren berri eman eta laguntza eskatu nahi diogu. Izan ere, ustekabean etortzen den arazoa da hau eta inork ezin dezake esan berari tokatuko ez zaionik". Zelan ez, dirulaguntzen alorrean ere sakondu egin nahi du elkarteak, Aita Menni bezalako zentru batean ingresatzea oso garestia izateaz gain, pentsioaz ordaintzea ezinezkoa da. "Ekonomia aldetik familiartekoentzat pisu handiegia da gaisoa zentru pribatu batean izatea, horregatik administrazio publikoari zentrua egiteko dirulaguntza eskatu nahi diogu. Gainera, kontu korronte bat ere zabaldu dugu hala nahi duten guztiek elkarteari laguntzatxo bat eman diezaioten".

Tamalezko egun hark ekarri ditu Judy eta Josele gure artera. Arratsaldero, lanetik irten eta gero, berak esaten dion bezala "bere mutila" bisitatzera joaten da Judy. "Bera ikusteak izugarri pozten nau. Askotan bere aldamenean jartzen naiz eta pentsatzen dut: zein zentzu du bere bizitzak? Baina hilda baino nahiago dut bizirik ikustea, bera da-eta nire mutila"

**B**

**uruko traumatismoak dituztenentzat zentru bat antolatzea da ATECEren helburua**



Aita Mennin onera egin du Joselek.

# Narciso: "Futbito jokalariek maila ona daukate baina konfidantza falta dute"

**Futbito taldea duela lau urte sortu zen Arrasaten. Probintzial mailan jokatzen hasi, eta estatuko lehen mailan ditugu gaur egun. Bi urte daramatzate lehen mailan jokatzen baina aurtengo denboraldia uste baino kaskartsuagoa da. Dena dela, oraindik partidu asko falta zaie egoerari buelta eman eta aurpegi berria erakusteko.**



Narciso, lehen mailako entrenatzailea.

**– Zelako maila aurkitu duzue aurten?**

– Maila honetan oso nibel altua dago, gure ahalizatearendako maila altuegia beharbada, bai kirolari dagokionez eta baita talde moduan ere.

**– Denboraldia uste baino txarragoa dela esan dezakegu?**

– Denboraldia hala-halakoa da maila guztietan. Batetik sponsor barik geratu ginen, aurredenboraldia ere txarto hasi genuen eta denboraldiko lehen partiduak galdu egin genituen. Horrez gain, jende berriak igo du lehen mailara eta kalitatea eduki daukaten arren, ez dira egin, taldean sartzea falta zaie.

**– Zer somatzen duzu faltan taldean?**

– Jokalarien arteko batasuna, batez ere. Duela lau urte, taldea sortu zenean, denok egiten genuen taldearen alde lan, bakoitzak bere erara, baina jokalarien arteko batasuna begibistan zegoen. Aurten, berriz, jokalari bakoitza bere aldetik dabil, jende berriak ez du lanik egiten, dena egina eman diegu eta esaten den bezala, ez dira "bustitzen". Betikoek jarraitzen dugu lan egiten. Gazteen jarrera ulertuezinezkoa da, azken finean taldea eurena da. Bestalde, jokalari guztiek edo gehienek dute kalitate ona baina goian izateko elkar-laguntza behar dugu.

**– Pozik zaude jokalarien lanarekin?**

– Egiten dutena baino gehiago egin dezakete. Egia da, bestalde, kantxa-orduak falta ditugula. Kantxan bi egunetan entrenatzen dugu eta epe motz horretan alde teknikoa eta fisikoa landu behar ditugu. Baina kantxa-ordu gutxi izateari, jendea ez dagoela ikasteko gertu gehitzen badiozu, lana gatxagoa egiten da.

**– Jaisteko arriskurik baduzue?**

– Asko gainera. Hamasei talde daude eta hiru jaisten dira. Une honetan, lau talde gaude hiru postuetarako, pentsa zelako arriskua daukagun.

**– Epaileekin ere arazoak izan dituzue, ezta?**

– Epaileak, batez ere kanpoko partiduetan, nahiko txarto portatzen dira gurekin. Ezin dezakegu esan sailkapenean betetzen dugun lekua epaileen errua denik, baina bai ordea zenbait emaitzetan eragina izan dutela.

**– Ondo erantzuten dute jarraitzaileek?**

– Aurten jende gutxi etortzen da partiduetara. Gainera Arrasateko jarraitzailea hotza da benetan, ez du animatzen. Beste herri batzuetako jarraitzaileak hustu egiten dira taldearekin, hemen, berriz, ezer ere ez. Partiduetan ez dugu jarraitzaileen berotasuna sentitzen.

**– Etxean ala kanpoan jokatu, zer da zailagoa?**

– Etxean, beharbada, jendeak kantxa ondo ezagutzen du eta konfidantza gehiago du. Hala ere, lortutako emaitzei gainbegirada emanez, kanpoan lortu ditugu emaitza hobeak.

**– Zer espero duzu bigarren bueltan?**

– Oso itxaropentsu nago. Denok elkartu eta konfidantza hartzen badugu, gure itsasontzia ez da pikutara joango. Orain datozkigun neurketak irabazteko aproposak dira eta partidurik erabakiorrenak etxean jokatuko ditugu.

**– Futbitoa futbolaren anai pobrea da?**

– Bai, egia da. Futbitoan ez dago azpiegiturarik, ez dago dirurik ezta publizitaterik ere, asko falta zaio futbolaren mailara iristeko. Futbitoan harrobia falta da, Euskadin behintzat. Madrilen eta inguruetan, esatebaterako, beste gauza bat da, askoz ere talde gehiago dago eta futbitoarekiko hemen ez dagoen sentsibilitatea dute.

*"Oso itxaropentsu nago bigarren bueltarekin. Orain denok elkartzea eta konfidantza hartzea baino ez zaigu falta".*

## PENALTIAK

**● Eskola-arteko igeriketa txapelketak egingo dira zapatuan Musakolako igerilekuan. Txapelketa arratsaldeko 4retan hasiko da eta froga bi gainditu beharko dituzte partehatzaileek. Batetik 84an jaiotako neska-mutilek 50 metro bular egin beharko dituzte eta 83an jaiotakoek 100 metro bular. Bergara, Oñati, Legazpia eta Arrasateko igerilariak izango dira txapelketan. Igeriketa gazteen artean bultzatzeko antolatzen dira Eskola-arteko txapelketak.**

**● Dorletako Ama Txirrindulari eskolak aurtengo denboraldirako taldeetako kide eta babesleen aurkezpena egingo du zapatuan. Goizeko 10.30etan eskaintza egingo diote Dorletako Amabirjinari santutegian eta 11.30etan aurkezpena egingo da Gure-Ametsa jatetxean.**

# Saskibaloia, eskubaloia eta pilota



Urbina Maltzaga 6.30etan eta eskubaloia 8.30etan Iturripen.

**Urbina-Maltzaga**k Caja Cantabria taldearen kontra jokatuko du zapatuan arratsaldeko 6.30etan, Iturripen. Partidua ez da samurra izango baina Arrasateko taldeak ahalegin berezia egin beharko du partidua irabazi eta puntuak etxean geldi daitezen. Denboraldiko sasoi honetan eta taldea nola dagoen ikusita, puntuak behar dira arrisku lekutik kanpo gelditzeko. Caja Cantanbria talde sendoa da eta horren erakusgarri sailkapenean betetzen duen 3. postua. Urbina-Maltzagak irabazi egin zuen joan zen zapatuan Ponferradaren kontra eta 20. jardunaldiko erronka ere gainditzeko asmoz kantxaratuko dira Txus Brizuelaren mutilak. Entrenatzaileak Saez de Viteri izan ezik, gertu izango ditu zapaturako gainontzeko jokalariak.

**Eskubaloia**

Eskubaliokoek, Bejarano de Bejar taldearen kontra jokatuko dute jeitsiera faseko bigarren partidua zapatuan arratsaldeko 8.30etan, Iturripen. Imanol Alvarezen mutilek ezin dute huts egin etxeko partiduetan, beraz, zapatukoa irabaztea derrigorrezkoa izango da. Aurkariek arrasatearrek baino bi puntu gehiago dituzten arren, irabazteko moduko taldea da. Taldeko jokalari garrantzitsuena atezain errusiarra da. Beraz, zorrotz jokatu beharko dute porteria aurrean arrasatearrek. Arrasateko taldean Aja jokalaria lesionatuta egon ondoren, jokatzeko moduan egongo da zapatuan, beraz, baja bakarra Ricky izango da. Hain partidu erabakiorra izanda, jarraitzaileek taldeak behar duen bezala erantzungo dutelakoan gaude, guztion bultzada beharko dute eta.

**Pilota**

Pilotariek eskuz banaka eta paletan jokatuko dute zapatuan goizeko 11etatik aurrera Aramaion. Paletan Arrasatek eta Altzak jokatuko dute elkarren kontra eta eskuz banaka Arrasatek eta Llodiok.

## EMAITZAK

**Futbola**

**3. maila:** Mondra 0 - Aloñamendi 0
**2. Erregionala:** Mondra 3 - Segura 2
**Emakumeak:** Ostadar 0- Mondra 4
**Jub Ohorezko liga:** Mondra 1 - Mundaniz 1
**Lehen kadeteak:** Bergara 1 - Arrasate 0
**Infantilak:** Arrasate 5 - Beasain 0
Hurrengoak:
**3. maila:** Santurtzi - Mondra. Igandea. 11.15etan.
**2. erregionala:** Mondra - Eibartarra. Larunbata. 4.30etan.
**Emakumeak:** Mondra - Intxaurrondo. Igandea. 4.30etan.
**Jub Ohorezko liga:** Aurrera - Mondra. Larunbata. 4.30etan.
**Lehen kadeteak:** Arrasate - Aloñamendi. Igandea. 12etan.
**2. kadeteak:** Arrasate - Almen. Igandea. 9.30etan.
**Infantilak:** Aloñamendi - Arrasate. Igandea. 11.30etan.

**Saskibaloia**

**EBA Liga:** U. Maltzaga 68 - Ponferrada 65
**Seniorrak S-23:** U. Maltzaga 65 - B.K.L 47
**Juniorrak B:** Erka Don Bosco 78 - U. Maltzaga 40
**Seniorrak Emak:** Alde Zaharra 25 - U. Maltzaga. 48
**Kadeteak A:** Etxadi 54 - U. Maltzaga 61
**Kadeteak B:** U Maltzaga 40 - Ikastola Urmek 44
**Kadeteak** Emak A: Mary Ward 26- U. Maltzaga 30
**Kadeteak Emak B:** U. Maltzaga 59 - Don Bosco 33
Hurrengoak:
**Eba Liga:** Urbina Maltzaga - Caja cantabria. Larunbata. 6.30etan. Iturripe
**Seniorrak S-23:** Politekniko - U. Maltzaga. Asteazkena. 7.15etan..
**Juniorrak B:** Urbina Maltzaga - Euskalduna. larunbata. 4retan.
**Kadeteak B:** Euskalduna - Urbina Maltzaga. Igandea. 10.30etan.
**Kadeteak emak A:** Urbina Maltzaga - Ondartza-Hondaribia: Larunbata. 12.30etan.

**Eskubaloia**

**Lehen maila:** Redoldela 22 - Arrasate 20.
**Lehen territoriala:** Bidebieta 22- Arrasate 23.
**Jubenilak:** Oñati 17- Arrasate 14.
Hurrengoak:
**Lehen maila:** Arrasate - Bejarano. Larunbata. 8.30etan. Iturripen
**Lehen Territoriala:** Pulpo - Arrasate. Igandea. 12etan. Zumaia.
**Infantilak:** Arrasate - Almen. Larunbata. 12etan. Iturripen.

**Futbitoa**

**Lehen Maila:** Arrasate 1 - Sestao 2.
**Arabako territoriala:** Arrasate 6- Txanogorritxu 8.
Hurrengoak:
**Lehen maila:** A. Tizona - Arrasate. Larunbata. 5etan.
**Arabako territoriala:** Esparza - Arrasate. Larunbata. 2etan.

**Rugbya**

**Lehen maila:** Elorrio 15 - Arrasate 8
**Emakumeak:** Arrasate 0 - Getxo 110
Hurrengoak:
**Lehen maila:** Arrasate - Hernani. Larunbata. 4etan. Garagartzan.
**Jubenilak:** Arrasate - Urretxu. Larunbata. 3etan. Garagartzan.

**Pilota**

**Paletan:** Arrasate 35 - Artzanda 28
Hurrengoak:
**Paletan:** Arrasate - Altza. Larunbata. 11etan. Aramaio.
**Eskuz Banaka**: Arrasate - Llodio. Larunbata. 11etan. Aramaio.

BURGALES JATETXEA
Jaki goxoak eta giro atsegina
Durana, 12
ARETXABALETA

TXOKO
TABERNA
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

# Kolesterolaren alde onak eta txarrak



**Kolesterola** koipe edo lipido moeta bat da, beraz uretan disolbagaitza. Gizakien gorputzerako ezinbestekoa da, zeluletan, D bitamina, hormonak eta behazun edo bilisa ekoizteko erabiltzen da eta. Premiazko osagaia denez, gibelak ekoizten du hori koipeori, baina ez behar adina. Berez sortzen duenarekin nahikoa ez daukanez, dietaren bidez eman behar zaio gorputzari osterantzekoa.

Zelulek behar-beharrezko dutenez, odolaren bidez garraiatuko da, izan ere, odola da gure organismoaren errepide-sarea. Koipea disolbagaitza denez, garraiobide bereziak behar ditu odolean joateko, "taxista" antzeko batzuk. Lipoproteinak dira horiek.

Jarrai dezagun kolesterolaren bidaia gizakiaren gorputzean zehar: kolesterola daukan elikagairen bat jaten dugunean, odoletik hestera pasatzen da eta lehen garraiobidea hartzen du: kilomikroiak. "Taxi" hau "hartu" eta kolesterola gibelera iristen da. Gero beste "taxi" bat hartuko du, lipoproteina LDL deitzen dena eta LDL-kolesterola edo "kolesterol txarra" egiten du, eta tejidoetaraino joaten da. Tejidoetatik gibelera itzul daiteke HDL deitzen den lipoproteina batean, HDL-kolesterola edo kolesterol ona esaten zaion lipoproteina.

**Zergatik esaten dugu kolesterol ona eta txarra?**

- Kolesterol txarra: LDL-ek tejidoetara eta arterietara eramaten duten kolesterola da. Bertan gelditzen da eta aterona plakak egiten dira.

- Kolesterol ona: HDL-en bidez gibeleko tejidoetara iristen da eta bertan behazun edo bilis bihurtzen da. Horrela ez da aterona plakarik egiten eta gehiegi baldin badago, liseriketan desager daiteke.

**Maider Nuin eta Jabier Sanchez**


# CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE

University of Cambridge
Local Examinations Syndicate

MATRIKULAK: MARTXOAREN 6TIK 16RA

**Azterketak eta datak**

K.E.T. (Key English test)....Ekainak 17
P.E.T.( Preliminary English Test)....Ekainak 17
F.C.E. (First certificate English)....Ekainak 13
C.A.E. (Cambridge Advanced English)....Ekainak 15
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)....Ekainak 14

**Azterketa "Eibar" Escuela Armerian izango da**

Cambridge Examinations Centre
Es-438

**Informazioa eta matrikulak**

| | | |
|---|---|---|
| **Arrasate:** | Parlance | 77 06 83 |
| | Cim-Ahizke | 79 01 32 |
| **Bergara:** | Espolon School of English | 76 03 53 |
| **Durango:** | Compubit English Institute | 620 20 20 |
| **Eibar:** | Anglo-American | 10 64 57 |
| | Interidiomas | 12 10 03 |
| | Link School of English | 10 39 59 |
| | Ukitze | 70 25 59 |
| **Elgoibar:** | Key Academia de Inglés | 74 30 44 |
| | Kensington School of English | 74 02 36 |
| **Ondarroa:** | Howdy Academy | 613 43 26 |
| **Oñate:** | A & M School of English | 71 61 37 |
| | Cim-Ahizke | 71 60 00 |

# Z E R   N A H I A G O ?

## Joxe Kruz Gurrutxaga



### "Goenkale"ko Karlos

- **Neskalagunik baduzu?** Bai.
- **Autografo asko sinatzen duzu?** Bai, gehiegi.
- **Anekdotarik izango duzu...** Bai, behin japones batek eskatu zidan bat.
- **Bertsolari bat?** Euskitze.
- **Musika talde bat?** "U2".
- **Ihauterietako mozorroa prest?** Ez, baina azken momentuan pentsatuko dut.
- **"Goenkale" tele-saioan lan egin aurretiko telebista esperientziarik baduzu?** Bai, "Flamingo Berria" eta "A ze parea!" saioetan lan egin dut.
- **Platotik kanpo, zer moduz konpontzen zara "Mikel"ekin?** Oso ondo.
- **"Karlos"ek eta Joxe Cruzek badute antzik?** Gauza batzutan bai.
- **Zenbat denbora ematen duzu gidoia ikasten?** Ez dakit, arratsaldeak horretan ematen ditut.
- **Zer moduz bizi da "Karlos" "Arralde"n?** Agobiatu xamartuta...
- **Jausiko ote da "Karlos" berriro droga kontuetan?** Agian bai, agian ez; ezin dizut esan!
- **Kirolik egiten duzu?** Bai, baina nire kontura.
- **Zure ametsetako bidaia?** Karibera.
- **Zure akatsik handiena?** Buelta gehiegi ematen diot buruari.
- **Eta bertutea?** Hori berori.
- **Larruzko kazadorak ala amerikanak?** Larruzko kazadora, jakina!
- **Zein da "Goenkale"ren arrakastaren sekretua?** Gidoia, gaurkotasuna eta erritmoa.
- **"Mertxe" neskalagun zintzoa da?** Bai, oso zintzoa.
- **Zein baldintza bete behar du neska batek zure gustokoa izateko?** Naturala izan behar du, besterik ez.
- **Zer oparituko zenioke neska bati?** Uf! Ez dakit, ez naiz oso erromantikoa...
- **Zein kolorekoa da zure hortzetako zepiloa?** Zuria.
- **Erretzen duzu?** Ez.
- **Zer edaten duzu jaietan?** Garagardoa edo kalimotxoa.
- **Zure oinetako zenbakia?** Berrogeita bia.

## LABURRAK

### Bertso-Eskola abian

Joan den asteko zenbakian iragarritako moduan, AED bertso-eskola sortu guran zebilen. Azkenean, hogeita hamalau neska-mutilek (hemeretzi neskak eta hamabost mutilek) izena eman dutela eta, bertso-eskola otsailaren 24an hasiko da.

Bertso-eskolak arratsaldeko 8etatik 9.30etara izango dira. Bi talde osatu dira adinaren arabera: bata 10 urtetik 11 urtera bitartekoa eta bestea 12 urtetik 14ra artekoa.

Patxi Goikolea eta Unai Bergaretxe izango dira AEDko bertso-eskolako arduradunak, bertsozale talde baten laguntzaz. Bertso-eskolok AEDko lokaletan izango dira.

### Dirulaguntzak

Kultura eta Kirol batzordeak dirulaguntzak eskuratzeko deialdia egin du. Dirulaguntzaren bat lortu nahi duten taldeek, honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte Arrasateko Udalean martxoaren 31 baino lehen: 94ko ekintzen memoria eta urte horretan izandako gastu eta sarrerak. Bestalde, 95erako zein asmo dituzten ere azaldu beharko dute.




umezaintza
HAUR-ESKOLA



95-96 ikasturterako izena emateko epea: martxoak 1 - 14
4 hilabetetik 6 urte arteko ikasketak

Informazio gehiago nahi izanez gero:
San Andres, 8 ARRASATE Tfnoa: 79 01 02

# Mª Dolores Fernandez de Rivera
## Ikasle-trukaketaren onuren gainean

**Institutuko frantses irakaslea da, eta baita Jonzac herri frantziarraren eta Arrasateren artean egin den ikasle-trukaketaren bultzatzailea. Astebete eman zuten bertan hainbat arrasatearrek eta orain, frantziarrak izan dira Arrasaten. Irakasle honek trukaketa horren nondik norakoak azaldu dizkigu.**



**— Nola sortu zen ikasle arteko trukea egiteko ideia?**

— Duela hamalau urte egin genuen lehen ikasle-trukaketa. Parisa joan ginen Institutuko ikasle eta irakasle batzuk eta oso ondo atera zen dena. Trukaketa haren ondoren, geldiune bat egon zen: ni kanpora joan nintzen eta duela bi urte arte ez genuen beste trukaketarik egin. Hamalau urte hauetan zehar ahalegin asko egin izan dut eta ikastetxe askorekin egon naiz harremanetan, baina kanpoko jendeak beldur handia zion Euskal Herriari eta ez zuen hona etortzerik nahi. Zorionez, beldur hori desagertuaz joan da eta duela hiru urte ikasle-trukaketa hauekin hasi ginen berriro ere. Irteera hauek maila partikularrean egiten ditugu, hau da, ez diogu gobernuaren inolako plangintzari jarraitzen; komeni edo interesatzen zaigun ikastetxearekin harremanetan jarri eta bien artean prestatzen ditugu trukaketak.

**— Zergatik aukeratu zenuten Jonzac herria?**

— Gure helburua Institutuko ikasleek frantsesa praktikatzea zen. Aurreko urte batean egin genuen trukaketan hankasartze handia egin genuen, beraz, hankasartze horretan ez jausten ahalegindu gara: eragin hispaniko handia zuen herri batera joan ginen, beraz, ikasleek, frantsesa hitzegin beharrean, erdera zekiten familietan zeudenez, ez zuten frantses askorik hitzegin. Oraingoan beraz, Frantzia erdialdean dagoen lurralde batera jo dugu. Jonzac herria Angouleme-tik oso hurbil dago, beraz, frantsesa baino hitzegiten ez duten familietan egon dira Arrasateko ikasleak, eta asko ikasi dutela uste dugu. Gainera, oso gustora egon dira bertan.

**— Nola baloratuko zenuke han bizi izandako esperientzia?**

— Oso positiboa izan da, bai hizkuntza aldetik eta bai alde ludikotik. Han egon ginenean irteera asko egin genuen: egun oso bat Futuroscopen pasatu genuen; Cogñac hirira ere joan ginen eta kupel fabrika bat bisitatu genuen. Bestalde, bertako bizimodua ezagutu genuen, baita familiako giroa ere, hemengoaren aldean nahiko desberdina da eta.

**— Astebeteko egonaldia egin zenuten. Ikasleek izan zuten euren frantsesa hobetzeko astirik?**

— Bai, asko ikasi dute. Gainera, frantsesa urrian ikasten hasi zen ikasle talde bat joan da eta bertan zeudela ondo moldatu dira hizkuntzarekin, ez zuten elkar ulertzeko beste modurik eta.

**— Era honetako ikasle-trukaketak egiteko dirulaguntzarik izaten duzue?**

— Kasu honetan bai. Joan zen urtean ez genuen laguntzarik izan baina aurten Bruselako "Lingua Cuatro" proiektuari esker, dirulaguntza jaso dugu. Proiektu honek Europa Elkartearen barruan egiten diren trukaketak bultzatzen ditu.

## LABURRAK

### "Pirata Jaia" Gaztetxean

Mondraueko Gaztetxeak "Pirata Jaia" egingo du otsailaren 25ean.

Bazkari herrikoia egongo da eguerdian. Joateko asmorik baduzu, jakin tiketak Gaztetxean bertan daudela salgai.

Arratsalde osoan zehar jai giroa izango da nagusi Gaztetxean: antzerkia, perkusio eta erritmo afrikarren talde baten emanaldia eta bertsolariak egongo dira ikusgai eta entzungai, besteak beste.

Jaialdiari bukaera emateko, kontzertua egongo da gauean: "Zakarrak" rock-taldeak eta talde-sorpresa batek joko dute mondraueko "rockero" eta musikazale guztientzat.

### "Fresa y chocolate"ren arrakasta

Joan den ostegunean zine klub egitarauaren barruan Amaia antzokian ikusgai izan zen "Fresa y chocolate" filmeak, sarrera errekorra lortu zuen: 413 lagun hurbildu ziren Oscar sarien zerrendan filme kanpotar onenaren sarirako nominatuta dagoen pelikula kubatar hau ikustera.

Zine-klubak eskaini dituen pelikulen artean, Tomas Gutierrez Aleak eta Juan Carlos Tabiok zuzenduriko honek izan du arrakasta gehien. Filmeak Kuban bizi diren homosexual eta zientzi politikoko ikasle komunista iraultzaile baten arteko gatazka ideologikoa isladatzen du.

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

# "VI. Play Back Jaialdia"

**Mondraueko** saltserorik haundienak gertu daude munduko eta bertako artista eta kantaririk handienak imitatzeko. Urtero legez, SUDC batzordeak sekulako "Play Back Jaialdia" prestatu du Udalaren laguntzarekin. Jaialdi honek duen arrakastaren lekuko, aurten izango den partaidetza aipatu behar da. Aurtengo emanaldian aurrekoan baino lagun gehiagok taularatuko dituzte euren ikuskizunak.



Barre algararik ez da Play Back jaialdian faltatuko.

Aurreko urteetan jaialdi hau ikusterik izan ez baduzu, jakin, "Sabado Regular" egunean egiten dela eta bertan, Mondraueko jende ezagunak eta ez hain ezagunak, espektakulu munduko pertsonaiak imitatzen dituztela. Kantuez gain, antzerki eta dantzak ere izaten dira.

Aurtengo "Play Back Jaialdia" seigarrena izango da. Aurkezle lanak Ruben Arriolabengoa aramaixoarrak eta Juanito Saizar berastegitarrak egingo dituzte. Jaialdia ikustera hurbiltzen den jende mordoa dela eta, iaz bezala, bi sesio egingo dira: bata arratsaldeko 7.00etan eta bestea gaueko 10.30etan. Sarrerak 500 ptatan daude salgai Eresi, Monte eta Xaramelan.

### GABONETATIK ENTSAIATZEN

Parte-hartzaileak Gabonak aldera hasi ziren euren ikuskizunak prestatzen. Bakoitzak, banaka nahiz taldeka, nahi duen pertsonaia aukeratu eta imitatzea du helburu. Azken finean, "Play-Back Jaialdia"k bizitza publikoko pertsonaien parodia egitea nahi izaten du eta momentuz, helburua lortu dutela esan daiteke. Jaialdi osoa amaierarik gabeko barre algara izaten da eta.

### HEMERETZI IKUSKIZUN

Aurten hemeretzi ikuskizun taularatuko dira. Hasteko, "Carta de Asuste: Informe Seminal" izenburupean, ondo ezagutzen dituzuen bi mondrauetarrek, telebistako informatiboaren imitazioa egingo dute. Ondoren, estatuaren hegoaldean "Txirigota" izenarekin ezagutzen den ikuskizuna eskainiko da: ikuskizun hau jaunartzea egiten dutenen parodia da. Jarraian, "Bonito Lertxundi", "Laura Pauxini", "Las Frescas", "Los Manolos", "Carlos Malvives", "Madness", "El Niño Bravo", "Hirukle Show", "Sergio De mi Alma", "El Coponazo", "Hirutruku", "Neskarriadak", "The Cowboys", "Rocio Jurado", "Jose Luis Perales", "If" dantza eta "Grease" izeneko ikuskizunak eskainiko dituzte partehartzaileek.

## LABURRAK

### Gazte Bulegoa: 1994ko datuak

Hona hemen 1994an Gazteendako Informazio Bulegoan izandako kontsulten berri: guztira 5.466 kontsulta egin ziren urtean zehar; maiatzean gehien (606) eta abenduan gutxien (303).

Urtarriletik ekainera bitartean, astialdiari lotuta dauden gaiei buruzko kontsultak egin ziren gehien bat: informazio turistikoa, oporrak, udalekuak, hotelak, kanpingak, etabar. Uztailetik abendura, berriz, hezkuntza arloko kontsulta-kopuruak hirukoiztu egin zuen aisialdi buruzkoa. Gainontzekoak, karnet, objezio, lanpostu, kultur ekintza, gazte eta kultur elkarte eta bibliografi kontsultak izan ziren.

Gazte Bulegoa erabiltzen duten neska eta mutilen kontsulta kopuruen arteko ezberdintasuna gutxitu egin dela aipatu behar da. Joan den urtean ez bezala, nesken kontsulta-kopuruak ez du mutilena bikoiztu hezkuntza eta aisialdi arloetan. Aitzitik, kasu bietan, %60ra heltzen dira.

Batzuk eta besteek egindako kontsulta-kopuruari begiratuta, zenbait gai neskek eta beste zenbait mutilek bereganatu dituztela dirudi: lan eta bibliografiaz neskek galdetzen dute gehien; objezio, kultur ekintza eta elkartegintza gaiei buruz, berriz, mutilek.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

ARGI PLASTIC
• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30



**Euskaldun** askok izan du Gernikara joan eta bertan "Arbola Santua"ren azpian erretratua ateratzeko ohitura. Mondrauetar hauek ere halaxe egin zuten 1953 edo 1954an Bizkaia aldera egin zuten bidaian.

Gehienak Zerrajerako laminazioko langileak dira, eta gainerakoak taldekoen lagunak.

Goian ezkerretik hasita, **Josu Otadui**, **Txomin Gastañaga**, **Kandido Uriarte**, **Agustin Uribetxebarria**, **Paulo Kortabarria**, **Isaias Urrutia**, **Joxe Irasuegi**, **Felix Gallastegi** eta **Demetrio Zubia**.

Erdian, makurtuta, **Tomas Isasmendi** eta **Kristobal Bedia**.

Behean makurtuta ezkerretik hasita, **Bittor Errarte**, **Sebastian Zugasti**, **Rufino Ezkurra**, **Felix Belategi**, **Txomin Aranzabal**, **Jose Beitia** eta **Mikel Arrieta**.

FELIPE MADINA
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

HERIZ
ERAIKUNTZAK
Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

# PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLENZ METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

**%10eko deskontua Gazte-txartelarekin**

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murritzailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan

☎: 79 52 17 ARRASATE





# Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



**Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)**



Arreta haundiko sukaldea

# UGARAN jatetxea

Giro abegikorra

**Garagartza auzoa** **Tfnoa: 79 76 58** **ARRASATE**

## · ESAERA ZAHARRA ·

*Otsailean aldiz eguzkitan, aldiz sutondoan.*

*REFRANES Y SENTENCIAS DE 1596*

## · JEROGLIFIKOA ·




**Gauzarik preziatuena.**

## · GURUTZEGRAMA ·

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | | | | | | | |
| 10 | | ■ | 11 | | | | ■ |
| 12 | | 13 | | ■ | | ■ | 14 |
| 15 | | | | 16 | ■ | 17 | |
| 18 | | ■ | 19 | 20 | | | |
| 21 | | | | | | | |

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Jesus Mari, artzain txapelduna. 9. Zapatu. 10. Superlatiboa adierazteko atzizkia. 11. Gizakiaren gorputzaren goiko atala. 12. Falta adierazten duen hitza. 15. Piztia ez den animalia ugaztuna. 17. Errepikatuz lelo. 18. Infusio mota. 19. Oiloaren arra. 21. Usainketa.

**Bertikalak** 1. Tolestu. 2. Erreminta. 3. Sexu maskulinoa duen animalia. 4. Euskal Herriko lurralde historikoa. 5. Nekadura. 6. Egintza. 7. Pare bi. 8. Kanpo. 13. Alfabetoko 2. letraren izena. 14. Zein tokitara. 16. Estatu Independienteen Komunitatea. 17. Zenbakien zerrendan lehena. 20. Leongo ibilgailuetan.

## · HOROSKOPOA ·

**Aries** Izugarri igartzen zaizu: errimina duzu.

**Taurus** Zein mozorro jantziko duzu? Urterokoa?

**Gemini** Asper-asper eginda dituzu inguruko guztiak.

**Cancer** Txintxarria falta zaizu lepotik zintzilika jartzea.

**Leo** Zein xelebreak diren zure familiartekoak. Zer jaten duzue etxean?

**Virgo** Hobe haratuzteetan kalera ez irtetzea. Ez duzu uste?

**Libra** Ondotxo dakizu: bikotea izateko garaia aspaldi joan zaizu.

**Scorpio** Zure zurrunken berri dute bizilagun guztiek.

**Sagitarius** Oso bakarti zabiltza azkenaldian, lagunekin irtetea komeni zaizu.

**Capricorn** Ez zara mozorrotuko, ez duzu jantzia bukatzeko astia izangoeta.

**Aquarius** Detektibe bat kontratatu beharko duzu etxekoak zaintzeko.

**Piscis** Aurten ezkontzen zarela? Printzesa zarelakoan edo?

Etxe-Aundi





Andregaiak, galdetze hutsagatik, oparia jasoko du

ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,

EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU

Anne de Codorniu

· TELEBISTAREN TXOKOA ·

# "Play-Back Jaialdia" ikusgai ATBn



ATBko kamarak "Sabado Regular VI. Play-Back Jaialdia"n izango dira emanaldi osoa grabatzen. Egun horretan Amaia antzokira joaterik ez baduzu eta herriko lagun umoretsuenak mundu zabaleko eta bertako kantari eta artista handienak imitatzen ikusi nahi badituzu, ATBn izango duzu horretarako aukera. Haratuzte egunean, otsailaren 28an, oso-osorik eskainiko dizugu "Play Back Jaialdia" telebistan 9.30etan. Gainera, martitzeneko informatiboa ere, egunak horrela eskatzen duela eta, guztiz umoretsua izango da: platoan bertan mimoa eta ihauterietako protagonisten elkarrizketak ikusi ahal izango dituzue. Ez gero hutsik egin!

· KOMIKIA ·




· PROGRAMAZIOA ·

ATB

**26 Igandea**
21.30etan
**Mondragol. Itxaro Zubillaga**k aurkeztua.

**27 Astelehena**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Mondrasport**

**28 Asteartea**
13.30etan
**Mondrasport** (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak "berezia".** Haratuzte eguna dela eta, informatiboak magazine itxura izango du.
21.30etan
**"Play-Back jaialdia"ren emanaldia.**

**1 Astezkena**
13.30etan
**ATBketan** (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Pareak Jokuan**
22.00etan
**"Play-Back jaialdia"** (errep.)

**2 Osteguna**
13.30tan
**Pareak Jokuan** (errep.)
20.30etan
**Berriak**
21.30etan
**"Trebelanak":** Paper eta kartoiez egindako irudiak.

**3 Ostirala**
13.30etan
**"Trebelanak"** (errep.)
19.15etan
**Marrazki Bizidunak**
19.50etan
**Kukaratxa Motel**
20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Astebete**
22.00etan
**Marrazki Bizidunak**

· SOLUZIOAK ·

**Horizontalak:** 1.Plazaola. 9. Larunbat. 10. En. 11. Buru. 12. Gabe. 1<5. Abere. 17. Bo. 18. Te. 19. Oilar. 21. Usnaketa.
**Bertikalak:** 1.Plegatu. 2. Lanabes. 3. Ar. 4. Zuberoa. 5. Anu. 6. Obra. 7. Lau. 8. At. 13. Be. 14. Nora. 16. EIK. 17. Bat. 20. Le.
**Jeroglifikoa:**
Bizitza.

Etxe-Aundi
1. PLATERA
Urdaiazpiko iberiarra
Frijitu aukeratuak
2. PLATERA
Haragia edo arraina
POSTREA
Etxeko gozoteria
ARDOA
Etxeko ardo gorria eta beltza
Kafea
Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Monte taberna
Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

## Etxebizitzak

- **Etxebizitza salgai Errebuelta kalea, 8** 6-Behea. Tfnoa: 79 41 68.
- **Etxebizitza erosi nahi nuke** 7 eta 9 miloi pta bitartekoa. Harremanetarako dei egin 79 37 68 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Maalako Arrabala,** 19. zenbakian. Tfnoa: 79 78 65.
- **Etxebizitza baten bila nabil Arrasaten.** Tfnoa: 21 63 74. Iban.
- **Nesken etxebizitza bat osatzeko bi pertsona behar dira.** Tfnoa: 79 11 85.
- **Etxebizitza salgai Uriburu kalean.** 3 logela, komuna, sukaldea, egongela berogailu indibiduala, garaje opzionala.Tfnoa: 79 39 91
- **Bi ohetako gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Nesken etxe batean logela alokatzen da.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.

## Lana

- **Esperientziadun neska arduratsua eskaintzen da** edozein motatako dendatan saltzaile lanak egiteko. Umeak zaindu eta etxeko lanak egin ere egingo lituzke. Tfnoa: 79 73 06.
- **Esperientziadun neska eskaintzen da** umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.
- **Laguntzaile gisa egingo luke lan** etxebizitzetan, tabernetan, atarietan, kontsultategietan,... Tfnoa: 79 96 10.
- **Neska, umeak zaindu,** etxeko lanak egin edo lokalen garbitasun lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 37 68.
- **Klase partikularrak ematen dira,** UBI eta asignatura batzuk (Matematika, fisika, kimika, informatika,...) euskaraz eta erdaraz. Talde txikiak. Tfnoa: 79 56 82 eta 79 71 89.
- **Gaisoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 88 40.
- **Aizu, neska.** Denda batean lan egin nahi baduzu, bidali zure datuak 259 posta kutxatilara (Arrasate).
- **Umeak edo adineko pertsonak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 23 54.
- **Esperientziadun emakumea,** prest garbitasun lanak eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 15 19. Informeak eskuragarri.
- **Andra bat etxeko lanak egiteko prest.** Orduka Tfnoa: 77 10 20. Nati.
- **Neska esperientziaduna umeak zaintzeko** eta garbiketak egiteko prest.. Tfnoa: 79 77 94.
- **Andra erizain auxiliarra eta esperientziadun gerokultora** pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Emakume euskalduna umeak zaindu edo interina moduan lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska bat OHOko klaseak emateko prest dago.** Euskaraz edo erderaz. Tfnoa: 79 25 09.
- **Neska esperientziaduna umea zaintzeko eta garbitasunak egiteko prest.** Tfnoa: 77 14 21. Usoa
- **Lanak makinaz nahiz ordenadorez pasatzen ditut.** Interesatuek 79 36 63 tfnora deitu eta Arantxirengatik galdetu.

## Salerosketak

- **Lokal komertzial baten bila gabiltza,** 200-300m$^2$koa eta erdikaldean. Tfnoa: 79 07 84. 4etatik 8etara.
- **100 litroko FAGOR termoa** saltzen dut prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **FORD ESCORT XB3i-a salgai.** (SS-AC). Tfnoa: 71 43 31.
- **Garaje itxia alokatzen da,** Larrea aldean. Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **10 litroko FAGOR kalentadorea salgai,** ia berria. 13.000 pta. **Berogailu japoniarra,** handia eta berria, 35.000 pta. Tfnoa: 77 01 64.
- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean.Tfnoa: 76 46 80. Gauez deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.
- **Garajea alokagai Uriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30
- **RENAULT 4-a salgai. 50.000 pta.** Matrikula: SS-T. Tfnoa: 79 58 82 (astebukaeretan).
- **Bigarren eskuko altzariak salgai.** Tfnoak: 79 23 97 / 79 52 80
- **Kanping edo karro erremolkea salgai.** Tfnoa: 79 00 99.

## Denetarik

- **Urrezko pultsera galdu zitzaidan urtarrilaren 21ean** Villa Amparo garajeetatik Aldairainoko bidean. Tfnoak: etxekoa: 79 00 16. lanekoa: 79 05 35. Gurutze.
- **Astelehenetan, goizeko 9ak baino lehen Bilbon egon beharra dut,** baina ez daukat autorik. Norbaitek eraman ahal izango banindu, gastuak erdibana egingo genituzke. Tfnoa: 79 76 90. Ana.
- **ARRASATE PRESS-eko 192. zenbakia behar dut.** Tfnoa: 79 55 04.

# Aste Gazte

### Bekak

• 95-96 ikasturtea Liejako (Belgika) unibertsitatean ikasketak zabaltzeko zein ikerketak egiteko bekan deialdia. Lizenziatuei nahiz karrerako azken urtean dabiltzatenei zuzenduak. Epea: martxoak 24.

• Kanpo-arazoetarako Ministeritzak frantsesa edo ingelesa menderatzen duten lizenziatuei zuzendurik, beka hauek deitu ditu, Luxenburgon burutzeko. a) 95-96 ikasturte akademikoan zehar, ikasketak sakontzeko bekak; b) Musika, artea, zuzenbidea, ekomonia, zientzia politikoak eta soziologia ikastaroak uda partean egiteko bekak. Epea: martxoak 24.

• "Alexender Von Humbolt" fundazioak "Wardwell" bekaren deia egin du, musika ikasleei zuzendua. Epea: apirilak 30.

### Lana

• Aizarnazabalgo Udalak bi lanpostu hauek kaleratu ditu. Administrari laguntzaile bat eta kultur dinamitzaile bat. Epea: martxoak 8

• Errenderiko Udalak informatika teknikari bat behar du. Epea: martxoak 28 gutxigorabehera.

• Alonsotegiko Udalak, gizarte laguntzaile lanpostu bat betetzeko deia egin du. Epea: martxoak 2.

### Eski kanpaina

• Dagoeneko, aste osoko ihardunaldiak besterik ez dira geratzen 15-29 urte bitarteko gazteei zuzenduak. Martxoko 5/10, 12/17, 19/24 eta 26/31 asteak; apirileko 17/22 Bazko astea. Erreserbak Gazte Bulegoan.

### Ikastaro gazteak

• Alboka, euskal dantzak, argazkigintza ikastaroak.

**"Ez zuen inolako tokirekiko loturarik eta ez zuen ez amodiorik ezta eginbeharrik ere onartzen, baina dagoeneko ez zen hain gaztea eta bakardadea hezurretan ezartzen ari zitzaion"**

**ISABEL ALLENDE**

arrasateko udaleko gazte-zerbitzua

**Informazio gehiago:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**Tfnoa: 77 00 65**

# ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOEN ESKAINTZA: "D" ETA "MURGILTZE" EREDUAK

2 urtetik 18ra Irakaskuntza Publikoa, Euskalduna eta Dohainekoa

Dohainik - 2 urtetik 18 urte arte - Euskara - Jangela - Gurasoekin harremanak
Eskolaz kanpoko ekintzak - Garraioa

## HAUR HEZKUNTZATIK HASI...

Txokoetan...


Hizkuntza


Joku sinbolikoak


Lur eraiketak


Sensore motorea

**Haurraren egokitze prozesua, autonomia eta sozializazioa bultzatzen dugu**

MUSAKOLA, ERGUIN ETA SAN ANDRESEN

## LEHEN HEZKUNTZARA PASA...

Arloak

- Esperientziak
- Matematika
- Ingelesa
- Soinketa
- Eskulanak
- Gizarte
- Euskara
- Gaztelera



ARRASATEKO INSTITUTUAN **ETA BATXILERGO EDO R.E.M.ekin BUKATU**

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR

SUKALDE ALTZARIAK

% 30

Beherapena

Zure sukaldea
*kolore berriekin*
jantzi dezakezu
*kalitate*
goreneko altzariek



FAGOR

**UKALDE ERAKUSKETA**

Jdala Enparantza, z/g
**RRASATE**
Tfnoa: 79 00 43

**BAINU ERAKUSKETA**

Zarugalde kalea, 52
**ARRASATE**
Tfnoa: 79 99 42